

# EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN  
ERRI AKADEMIA

XXVII Zenbakia.

1994

Jorrailla-Ekainilla

## AURKIBIDEA

	Orr.
Esaera zarrak.- Malax-Etxebarria'tar Yon (Barruko azalean)	
Euskal abizenak Erdiaroko idazkeran.- Latiegi'tar Bixente .....	1
Ogei ta bost urte geroago.- Jose Aierbe .....	9
Gau-arrantza. Olagarrua ta adokiñak.- Arrinda'tar Anes .....	13
Azkoitiar batzuen ateraldiak.- Albisu'tar Anastasio .....	18
Kerexetari erantzuna.- Latiegi'tar Bixente .....	24
Euskaltzaindia eztaietan.- Arrinda'tar Anes .....	30
Altzibar-Aretxuluaga tar Rokegaz.- Solozabal'dar Paulin .....	32
Ume kontuak.- Paulin .....	42
Garai Gaizteotako idazle euskaldunak. - Anes Lazkaoko .....	43
Mungialdeko Banakako berbak.- Legarreta'tar Asier .....	46
Itz elkartuen osaera eta idazkera.- Zatarain'dar A. ....	51
(Z, -Az, -Gaz) eta (-Kin, -Rekin).- Zubiri'tar Iñaki .....	55
Euskerazaintza ta idazleak.- Zubikarai'tar Augustin .....	56
Liburuak.- A. Z. ....	64
Esaldi jatorrak.- Oñatibia'tar Manu'k jasoak (Azalaren barru ta kanpoan)	

Zuzenbideak:

**GETARIA 21 - DONOSTIA**  
**C. LARREATEGI 14 - BILBAO**

# ESAERA ZARRAK

- 1.- "Onean, on dana; txarrean, txarrena".
- 2.- "Kerik nai ez dagianak, ez daiala piztu surik".
- 3.- "Jateko txarra onduteko, ez dago gosea lakorik".
- 4.- "Gure sabelak, gure jabeak".
- 5.- "Beioaz itzak, betoz ekintzak".
- 6.- "Gazteak ordu segururik ez, zarrak eskaburik ez".
- 7.- "Gauetz egiten dana, egunez ikusten da".
- 8.- "Ikusi nai ez dana, sarri begietan".
- 9.- "Edurra zurja dala, baltza da".
- 10.- "Zer merezi, axe etorri".
- 11.- "Zigorgabeko legea, mingain gabeko txiliña".
- 12.- "Nai duenak aal du, nai ez duenak guztia galdu".
- 13.- "Zor zarra, kaka zarra, beti usain txarra".
- 14.- "Or dabil batean batera ta bestean bestera, zalantzi-malantzan".
- 15.- "Egun on Mari Anton, baten gaitza, besteren on".
- 16.- "Kaixo Joxe Bixente, ementxe gaude, zu jarrita eta ni tente".
- 17.- "Ausartarentzat ollokia, uzkurarentzat txakurkia".
- 18.- "Baldin ba'dek jango dek, ez baldin ba'duk egon bearko duk".
- 19.- "Ogi gogorrari agin zorrotzak; gose denarentzat ez ogi gogorrik".
- 20.- "Eztuk tontoa errotaria, artoaren truk emaiteko garia".
- 21.- "Ainitz balio du indarrak, geiago buru azkarrak".
- 22.- "Berdin da alferrik egoitea edo lan alferra egitea".
- 23.- "Urruneko intxaurrak amalau, urbildu eta lau".
- 24.- "Sasian sortuak sasjan nai, arkaítzean sortuak arkaitzean nai".
- 25.- "Betiko itaxurak arrian ere xillo".
- 26.- "Sabel utsari ez emon arrazoirik, emon jatekoa".
- 27.- "Dabillenak sabe) aundi, dagoenak oin aundi".
- 28.- "Obe da gitxi euki eta pakea; ondasun askok dakar ikarea".
- 29.- "Txarto esan sarri ta geienetan igarri".
- 30.- "Barrearen barrez gixajo au negarrez".
- 31.- "Gaizkilleari barruko arrak sarri begietara negarrak".
- 32.- "Familia, erri baten geroaren mindegia".
- 33.- "Loretik fruitua, aurretik gizona edo emaztea".
- 34.- "Otsoak jan ala artzaiñak jan bildotsarentzat bardintsu".

Malax-Etxebarria'tar Yon

EUSKERATZAINZA

ISBN: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S.L. - Bilbao

EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAZ



# EUSKAL-IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN

(872'tik 873'ra bitarteko 4 larruki)

Bederatzigarren mendeko azkenaldera sartuak gera Kukulla'ko Donemil-  
lan'en Lekaidetxeko larrukien bidetik.

Gaurko lau larrukiok, aski laburrak ditugu luzaroz. Gutxi dira damaizkiguten  
toki-izenak, ugariak ordea giza-izenak, eta baita doneizenak ere.

Beti bezala, lau larruki auen gaia ere, lekaidetxee; egindako emaitzak dira.

Orduango Euskalerrriaren sarkaldea da larruki auetako gertakizunen lurral-  
dea: autrigoitarren lurraldea.

Gauza bat bakarra dute, gaurko larruki auek, benetan goraipagarria: Laue-  
tako batek, edestian aurreneko aldiz, judutar euskaldun baten izena ematen  
digula.

Autrigoitarrak aipatu ditut. Esana dutala uste dut, Erromatekoan Autrigoni,  
orduango euskal-leiñu edo tribu baten izena zala. Oso-osoan gure Euzkadi'tik-  
at aurkitzen zala esan bearko genduke Enkarterriak eta Araba'ren sarkaldea  
berek izan ez ba'litu.

Nerbion ibaiean asten zan, eta Santander uritik ez urruti, Atxo edo Ajo aitz-  
muturrean egiten zuan Kantabritarrek; n muga.

Egoalderuntz, lurralde aundia zan, iristen bait zan Okamendietaraiño, bere  
altzora Miranda-Arana, Billarkaio-aldea eta Bureba osoa bilduz.

Ekin dezaigun, besterik gabe, gure lanari, toki-izenen azterketatik asita.  
Ikus, lauen artean larruki auek damaizkiguten izen oien kopurua:

DONDISLE

COVA portera

TREPIA

OVETO

ERELIO

VILLIELLA

FLAINO

FRESNU

ALLAMPO

VILLOTA

SALCETO

CASTELLA

FERRANE

VILLATECA

SALCIDII

TIRONE

MOLINA DE OLIVARES

MOLINA DE OBARENES

CASTELLA.- Mintzatu izan gera len ere Gaztela'z, baiñan esan dezagun  
zerbait geiago, aztertzeraz goazten lau larrukiotan agertzen zaigun lurralde  
ortaz.

Lauetan datorkigu bere izena berdin idatzia: CASTELLA. Bañan, "E" ori "I", eta bi "L" oiek "LL" irakurriz, gaur-egun bezala CASTILLA agoskatu bear dalarik, goiztarregia iruditzen zait IX mendea ori guztia orduangoa izateko.

Seguruaski, izen ori, -CASTELLA = CASTILLA-, geroagoko berridazketa batean sartua dute gure lau larrukiok.

IX mendean "Castilla"rik ez zan oraindik. Askoz gutxiago Konterri edo Laterri baten antzeko Gaztela'rik.

Gaztelu batzuk bai, baziran. Ez dakigu zenbat, ez dakigu nolakoak, ez dakigu ziurki nondik. noraiño zeuden ere, baiñan baziran eta an zeuden. Orre-gaitik, arabitarrek "Al KILE", esan oi zioten lurralde arri: "GAZTELUAK", ainzuzen. Ori esan nai bait du itz arabiar orrek. Baiñan "Gaztelu" aiek Araba'ren luzapen bat ziran, arabarrek babestuak beti arabitarren eraso-aldietan. Seguruaski, arabarrek "GAZTELUETA" esanen zioten gaztel-leku guzti ari, eta ortik jaioa izanen da geroagoko lurralde aren izena: Castilla.

"Castella" artako kontearen izena ere ematen digute lau larrukiok: "Comite Roderico in Castella".

Larruki auen berridazleek eman nai dioten zentzuan, ordea, oraintxe esan dugun bezala Castella'rik ez zan oraindik garai artan. Baiñan konte bat bai, bazan. Ez ordea, au ere, berridazle aiek itz orri eman nai dioten zentzuan.

Konte ura, gudaiburu bat besterik ez zan; euskalduna seguruaski, "Kile" edo gaztelu aiek babesten zituzten gudari arabarrak bezala. Eta arabarra bera ere seguruaski, naiz kondaira gaztelarrak beste era batera mintzatu.

Arabitarren edestilariak ere aipatzen digute "Konte" aren izena: RUDERIQ.

Ona, 865'garren urteko erasoaldiari-buruz Aben Adahari izeneko edestilari aietako batek damaizkigun albisteak:

Duero ibaietik Arlanzon ibaiiaz-gora igota, Okamendiak igarota bereala dagoan Feh Berdhiz ((Pradanos de Bureba?) izeneko errian ipiñi ornen zuten beren kapardegia, andik, inguruko larretan arrapatzen zuten guztia lurreratuz. "No qued" a RUDERIQ Señor de Al Kile, ni a... (izen irakurgaitza) Señor de Toca, ni a Gundisab señor de Burgia, ni a Gomez señor de Mesanica, castillo alguno".

Dakusazunez "Konte" ez baiña "Jaun" esaten dio Aben Adhari'k Ruderiq ari. Baiña beste "Jaun" asko ere aipatzen dizkigu. Geiegi, ain toki motzean, aietako baten lurraldeak, Ruderiq'en Al Kile aiek adibidez, españiarrek nai luketen bezala, "Castilla" indartsu Laterri zabal bat osotu aal izateko. Ez zan IX mendean orrelako "Castilla"rik. Soilki gaztelu batzuk; eta, aiek, arabarrenak. Arabar autrigotarrenak.

Alatagutziz, badirudi Ruderik'ek bazuala alako garaitasun bat, besteen aldean. Begira ba zer geiago esaten digun Aben Adhari edestilari ark:

Gero, Ruderiq'en gaztelurik ederrena zan Al Mal-leha (¿Salinillas de Bureba?) artu ta ezereztu zutela. Andik, indarrez Feg Al Cagüix (¿Pancorvo?) igarota, Ibero ibaieraiño eta Al Ahazon (¿Arganzon?) uriaren lurralderaiño eraman zutela borroka. Ta, kristauak garaiturik, arrapatu zuen guztia desegin ondorean, etorritako bidetik itzuli zirala garaille, oraindik zutik aurkitzen zutena lurrera boteaz.

Araba'ko konteak beraiek zer ote ziran? Buruzagi utsak seguruaski. Ez beintzat Asturietako konteak bezala jaun feudatarjak. Ori, Sampiro garai artako gotzai edestilariak berak jakitera damaigu. Ikus:

' Bernardo Estornés Lasa: "Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco", I, 373-374.

Dokumentuetan agertzen zaigun lenen Araba'ko Kontea Eylon da. 866'garren urtean, Eylon, Asturietako III Alfontso'ren aurka borrokan zebillen. Menderatua izan zan, eta Obiedo'ra baiturik eramana. Sampiro'k, gertakizun artaz idazterakoan, ez daki Eylon ari zer titulo eman; Arabarren buruzagia zala, badaki. Baiñan berak Asturietako Erreiñuan ederki ezagutzen dituan konte aiek bezalakoa ez zala ere bai.

Orregaitik, katigu jausitako Jaun ari-buruz zerbait esan bera-eta, ez zuan arabarren Kontea zanik esan; soilki "qui videbatur comes eorum" esan zuan: "Aien kontea... jzirudiala!: "Videbatur".

\*~\*~\*

COVA. Ez digu izen onek zerbait jakiteko ezertxo ere balio. Toki izen da. Euskalduna izan daitekean galdetzen ba'didazu, baietz erantzungo dizut nik, gaur egun ere Koba, Kobia, Kobie, Goba, Gobia, Gobie, euskaldun karistiarren ezpaiñetatik sarritan entzuten dan itza bait da. "...presimus presuras in montibus in fontibus (...) de Co<sup>y</sup>a portera usque perrexit Allampo" dio larrukiak: "jaberik gabeko mendiak eta iturriak artu genituan, sarreran dagoan KobaTik Allampo'ra iritxi arte".

"KOBA" -eta orren aldakuntza dan "GOBA"- itza Karistiarren euskerara sartu izateak badu bere mixterio-koxxorra. Ez zan erromatekoan sartu. Erromatarrek ez bait zioten leizari "co<sup>y</sup>a" esaten. "Spelunca", esaten zioten; edo "spelum", "antrum" eta "latibulum". "Co<sup>y</sup>a", erdiaroko lateraren itza da. Baiña erdiaroan oso berandu agertzen dana!

Erdiaroan sartu zan beraz itz ori gure Sarkaldeko euskalkira. Nola, eta non-dik ordea?

Laterazko itzik geienak, erdiaroan Liturgiaren izkuntzatik sartuak ditugu. Eta ona, orain, aipatutako mixteriotxoaren koxxorra:

"COVA" itza Biblian ez da bein bakarrik ere agertzen! Ori eskierki esan aal izateko, aztertu ditut "Concordantiae Biblicae" esan oi zaien Iztegi Bereiziak. Ez dago ezpaidarako biderik: Bibliak ez du itz ori ezagutzen. Ezta Liturgiak ere. Liturgiak ez du sekulan "cova"rik aipatzen.

Non arraiotik sartu ote zitzaigun bá itz ori gure sarkaldeko euskeraren altzora? Orren berandu gaiñera? "Co<sup>y</sup>a" erdiaroko lateraz baiño lenago agertzen bait da "cueva" azken erdiaroko gaztelera!

Gabiltzan beraz eme! Euskeraren atzora sartu?, ala euskeraren altzotik atera egin ote zan itz ori?

Gaur ez dut astirik, baiña nai nuke datorren egunean zerbait esan arazo poxxpolin ortaz.

\*~\*~\*

ALLAMPO.- Paul abata, Jon bereterra ta Nuño elizgizona "COVA"tik "ALLAMPO"ra ibilli zirala lurrak artzen, diosku 872'ko uztaillaren 4'eko larruki onek.

Aurrena, agoskatu dezagun ongi izen ori: Bere bi "L"ak "L" dira oraindik IX mendean: ALAMPO, beraz.

Baleike izen ori, gure larrukian oso itxuraz aldaturik agertzea. Zer ote zan bere egiazko itxura, ots, erriak itzegiterakoan ematen ziona? ARANKO? Ez dut uste. "Aran" jatorra "Alan" biurtua izatearen aldetik eragozpenik ez legoke, euskerazko "R" oso errez eta maiz "L" biurtzen bait dute erdeldunek, bein baiño geiagotan esan dugun lez. Baiñan, ez dakit larrukian izen orrek dakarren

"PO" atzizkia "KO" izan daitekean. Ez bait dakit "K" euskalduna erdeldunen ezpañetan -edo lumen punttetan- ain errez "P" biurtzen danik ere.

Danadala, "Alancho" bat bada Araba'ko Kanpetzu'n. Toki-izen orren "CH" izki bikoitza "K" agoskatzen ba'dugu, ALANKO aterako zaigu. Bai baiña..., seguruaski, gaur kanpetzutarrek toki orri Alantxo esaten dioten bezala, Alantxo esanen zioten antziñako egun zarretan ere. Askoz errezagoa da, itz ortan jatorrizko "R" euskalduna "L" bihurturik egotea, gaurko "TX" ori antziñako "K" bat izatea baiño.

Danadala, antziña ere gaurko "TX" ori "TX" esaten ba'zan Kanpetzu'ko Alantxo, ARANTXO izango litzake: "Vallecito". Ainzuzen antxe bertan dago Araba'ko arantik politenetako bat: "El Valle de Arana": "El Valle del Valle".

Ta? Larrukiko Allampo euskalduna ote? Euskalduna zan beintzat IX mende artan izen orri zegokion tokia, Losa izeneko Arana.

Baditugu beintzat, gaur bertan, Araba'n Kanpetzu'ko Alantxo ortaz gaiñera, enbor lez "ALAN" daramaten toki-izenak: Alanas (Alan-ats), Kanpetzu'n bertan; Alantxogueta (Arantxo-guen-eta?); Alangorri; Alangua (Alan-koa?) izeneko erri bat; Alanguarabide eta Alangurabidea; Alaña (Alan-gaiña?) erri baten izena.

ALANGUA erri arabarraren izenak gogoeta auxe piztu dit buru barruan: "Alan-gua" "Alan-koa" dan bezala "Alampo" zar ura ez ote zan "Alanko"? Ots, ARANGO, "R", oso maiz, erdeldunek "L" biurtzen dutelako? Onela ba'litz, bi itz oiek IBARREKOA eta IBARREKO'ren senide izango lirake.

Orri uste aal izateko, ordea, Euskeraren "K" edo "G" izkiak euskeraren barruan edo euskeratik erderara igarotzerakoan "P" biurtzen díran jakin bearko genduke. Iñork orrelako ejenplu edo adibide bat ezagutzen badu, benetan jasoko ditu nere eskerrik sendoenak, orrelako adibideen jakitun egiten ba'nau. (Nere norabidea: Seminario Diocesano. Apdo.86. Bitoria-Gazteiz). Naita idatzi dut "B"z, oraingoz Euzkadi'ko uriburua danaren izena, itz ori euskalduna izan daitekeala iduritzen bait zait.

Ataltxo au bukatzeko, esan dezadan, Alangua erriaren izena 1.712'an ALAUNGA agertzen dala; eta ALAUNGARABIDEA berriz 1.712'ko urte ortan bertan, sei urte lenago, 1.706'ean, Alanguarabide agertzen zana. Lumalari bat beraren erruz, seguruaski, erru orren aurretik eta erru ortaz gero, izen oien enborra "Ataun" ez baiña "Alan" izan bait da.

Sei urteko epe laburrean orrelako aldakuntzak gerta ba'daitezke, nork jakin ainbat aldiz berridatziak izan diran gure larruki zaarrei zer gertatu zaien. Gauza zailla dala etimologigintza!!! Ta, larrukiek, eta zorioneko dokumentu zarrek ez dutela siniste itxurik merezi!!!

A! Ezin esango dizut larrukiak damaigun izen orren esan naia zer dan, ez bait dakit izen orren enborra dan "ALAN"ek zer esan nai dezakean.

\*\*\*

ERELIO.- Naiz "E" nagusiz idatzirik agertu, Erelio ori erri baten edo beste zerbaiten -belardi, alor, baso edo orrelako zerbaiten- izena dan jakiterik ez dago. Nik, erri batena ez baiño beste zerbaiten izena dala esango nuke. Joan naiz, ori argitu nairik, laterazko, erdiaroko later, erromantze eta gaztelera zarreko iztegiatar, baiñan ez dut "erelio" itzik aurkitu.

Nere kezka oiek larrukiak bi Erelio aipatu izatetik sortuak dira: eskuñekoa eta ezkerrekoa:

"De Co<sup>y</sup>a portera usque perrexit Allampo et Sancti Saturnini usque ad Ere-

lio dextero, et de sinistro ab omni integritate": "Sarrerako Koba'tik Alanpo'ra iritxi arte, eta Saturnino Donetik eskuñeko Erelio'raiño eta ezkerredekotik osotasun osoa".

"Osotasun oso ori" Dondisle Aranari dagokio an bait zebiltzan larruki onen idazteerazleak jaberik gabeko lurrak arrapatzen: "in loco que dicitur Valle de Dondisle", "Dondisle'ko Arana esaten zaion tokian".

Dondisle Aranaz, Aldizkari onen beste zenbaki batean itzegin genduan.

Emen, SATURNINO DONEAREN izena toki-izen bihurturik agertzen zaigu. Ta ori garrantzi aundiko gauza dugu, Euskalerriko kristautasunaren edestian ez bait da edozein Saturnino Donea.

Tolosa'ko Gotzaia izan zan III mendearen erdian. III mendean, Tolosa, Garona ibaiaren ertzeko uri ospetsua, Akitani euskaldunaren muga-mugan zegoan, eta seguruaski erdi-euskalduna zan bera ere.

Naitanaiez izan zituan, beraz, Donesaturnino'k euskaldunekin arremanak.

Edestiak ez digu arreman oietaz, oso berandu arte, deus esaten. Kondairak, ordea, Euskaldunen ebangelarietako bat Donesaturnino izan zala dioskute: Iruña'raiño etorri zitzaigula, eta kondaira oietako baten ustez, berak bataiatu zuala eta berak sagaratu ere zuala Iruña'ko lenen Gotzaia: naparrek ain maitea duten Fermin Donea2.

Kondaira geienek izaten dute olertizko lili ugarien azpian egiaren zati bat. Eta zati ori badute noski, Saturnino Donearen oroitza gordez, mendeak-zear gure denborotara iritxi zaizkigun eusko-kondaira zaarrek.

Ori adierazten dute Saturnino Doneari euskaldunek eman dizkioten izen maitetsuek. Eta, baita, Saturnino Donearenganako eraspina Euskalerrian ain goizik zabalduzik egon izateak.

Izenei dagokionez, frankiarren erara, "Zernin" biurtu zuan Naparroa'ko erromantzeak Saturnino izena. Baiñan askoz leenago "Satordi" edo Saturdi deitu zioten euskaldunek goxoki. Benaparroa'n eta Laburdi'n, berriz, aspaldi-aspalditik eraspenduak eta, ortaz gaiñera, oso maitatuak ziran Donee ematen zitzaizen oorezko izena eman zioten Saturnino Doneari: londoni Saturdi.

Guk, larruki ontan toki-izen bihurturik aurkitzen dugu londoni Saturdi'ren izena.

Lurralde batean Done baten izenak toki-izen bihurtua izatera iristeko, ordea, askoz eta askoz leenagotik, ezagutua, omendua, eta maitatua izan bear du Done orrek lurralde artan.

Gure larruki au zarra da: IX mendekoa. Mende ortan londoni Satordi'ren izena toki-izen bihurturik egoteak, beraz, londoni Satordi-ganako eraspina mande Dondisle'ko Aranera mendeak leenago iritxi zala esan nai digu. Zenbat mendez leenago?

Dondisle Arana, ordea, Euskalerrian, sarkalde-sarkaldeko lurra zan. Autrigoitarren ertza-ertzakoa, Eusko-lurralde urrutienetan urrutiena, zokoratuen artean zokoratuena, bide nagusi orotik baztertuena. londoni Satordi ibilli omen zan Akitaniarren eta Baskoien lurraldetik aldenduena.

Autrigoitarren azkeneko muturreraiño ain era sakonean IX menderako iritxiz, londone Satordi'renganako maitasuna Euskalerrian zabaltasun osoan ain goiz zabaldu ba'zan, euskaldun guztiak, zerbait oso aundiaren truke londoni Satordi'ri zor bereizi bat bazietelaren jakitun zirala uste izatea naitanaiezkoa dugu.

<sup>2</sup> "Edestia", gazteleraz Historia. "Kondaira", gazteleraz, Leyenda: "Lo que se cuenta".

Orrela, IX mendeko larruki zar au, kondaira oien barrengo egitasunaren alde mintzatzen zaigu: londoni Saturdi III mendean gure asabek ebangelari izan zutelako ori egia izan daitekeala erakustera datorkigula dirudi.

Ez da, ori, Edesti-iztiaren alorreko arrazoi sendo bat. Bai ordea Logikaren baratzako aalgarritasun edo posibilitate sendo bat. Ez dezagun, berriz, aztu, Edesti soilla ez dala bera bakarrik antziñako gizabizieraren berri-emateko gauza; bearrezkoa duala Logikaren laguntza.

Oraingoz londoni Satordi utzita, ERELIO'ra itzultzen ba'gera, zegoan tokian zegoalako, bere izena euskalduna dala esango dizut. Badugula gaiñera Euskalerrian izen orren emborra dan EREL daramaten toki-izen geiago. Bí aurkitu ditut nik: Baso baten izena da EREL TUA, Araba'ko Legutiano'n. EREL, berriz, Naparroa'n Elortz ibaiak urratutako arrupe batena.

"Erel"ek zer esan nai dezakean, ordea, ez dakit-eta, ezin esango dizut nik. Lagundu bezait irakurleren batek, bera korapillo ori askatzeko gauza baldin ba'da.

Gaiñera "Erel" au, ez ote da "Eredio"ren aldakuntza, ta "Eredia"rena berriz azkenoko au"? "Ered"z mintzatuak gerala derizkiot.

\*\*\*

VILLOTA.- "...illa hereditate in loco que dicitur Villota et Villateca et Sancti Staphani". Lumalariak oztopo egin digu esaldi ori idaztera koan: "In loco que dicitur" ez baiña, "in locis que dicuntur" idatzi bear zuan. Orregaitik, onela euskerátu bear diogu bere oldozkera: "Billota, Billateka ta Doneztebe esaten zaien tokietan".

(Eskerrikasko, irakurle, baiñan badakit "que" ez baiña "qui" ipiñi bear zuala gure lumalari zar arek; ori, ordea, ez diot zuzendu nai izan).

"Bill" eta "BIL" aurrizkietaz mintzatua naiz bein baiño geiagotan, Aldizkari ontako orrien bidez. Esan nuan "VILLA" aurrena laterazko eta gero gaztelerazko itza dala. Azaldu nituan aro ezberdiñetan izan dituan zentzuak. Baiñan, argi utzi nuan, baitare, bedi aurrizki bezala, bedi erdizki bezala, bedi atzizki bezala, "BILL" edo "BIL" itz ori Euskalerriko toki-izenetan zeñen maiz agertzen zaigun.

Bee-erdiaroko Bizkai'n Jaunek, eta Bizkai'z kanpoko Euskalerrian Erregeek, arresiz inguratutako uriak eraikitzen asi ziranez gero, "Villa" daramaten uriek (Villaviciosa de Markina, Villafranca de Oria, Villarreal de Legutiano, Villanueva de Arga...) "Villa" ori gazteleratik datorkien itza dutela badakigu.

Baiñan XII mendez aurretik, Euskera mintzatu zan lurraldeetan, "Billa"ren bat agertzen ba'zaigu, -antziñako Aurtigoitarren Billarkaio'ren ala Iruña-ondoko Billaba'ren izenetan adibidez-, arreta millaz ibilliko nauzu ni, erri oietako BILLA ori lateratik datorkien "VILLA" bat dutela esan aurretik. Euskalduna izan bait dezakete. Ta, izan ere, seguruaski, euskalduna bait dute!

Orain Burgos'koa dan Billarkaio aurtigoitarraz eta Iruña'ondoko Billaba Baskoiaz, zuzenean aritu izan gera. Baita Bibar'ko Diaz On Errui (Don Rodrigo Diaz de Vivar) "Zid"en jaioterriaz ere. Erri orren izenari bi "V"ak "B" biurtzen baldin ba'zaizkio, erdel-kutsu oro galduta, izugarritzko euskal-kutsua sortzen bait zaio. Ez zaitez arritu, baztar artan euskeraren aztarnak aurkitzen ba'ditugu. Bibar bustitzen duan erreka berak ere, URBEL izan bait du beti bere izena!

"BILL", eta atzizki ta guzti "BILLA" itzak zer esan dezakean ez dakit. Bere azken urteetan adiskide maitea izan nuan Lopez Mendizabal'dar Ixaka'ren ustez, gazteleraz "brezo" esaten dan "illar", "illa", itzetik ornen dator, aurretik "B" protetiku edo apaingarri bat daramala.



Ez dakit ori orrela dan; baiñan itz ori gure toki-izen askotan naitanaieuz euskalduna izan bear duala, bai.

"B"z batzuk "V"z geienak, "villa"rekin zer-ikusia baduten 81 izen aurkezten dizkigu Lopez de Gereñu'k. Badira oien artean erderazkoak, baiñan badira, asko gaiñera, euskerazkoak ere: Bilaustegia (Bil-autstegia?) adibidez, ala Villanos (Bill-ano-ts?), Villarreta (Bill-arreta), Villacun (¿?), Villangarratea (Billangarratea?), Villaran (Billaran)... eta anitz geiago<sup>3</sup>.

Ar ezazu eskuetan Kerexeta'tar Jaime'ren Abizen-Iztegia."Bil", "Billa"z asten diran abizenak ugari aurkituko dituzu bertan. Laister oartuko zera, nolako euskal-usaia darioten izen aietako askori.

Gure larrukiak, "BILL" daramaten iru toki-izen damaizkigu. Euskaldunak diruditen eta aipatu ditugun Villota ta Villateka aiek, eta aiekin batera beste bat: Villiella, agoskeraz "Villlela": "Et sua populacione pernominata Villiella": "ta Uritxo deritzan ango erriska".

Izen ori seguruaski erderatik datorrela esan dut. Ala ere, badaezbada aitortu bear ko dut asko dirala Euskalerrri zarrean "ELLA", "ELA" eta "EL" daramaten toki-izenak, eta, ondorioz, abizenak. Araba'n bertan, Ellabeia ("ella"- "beia") Arroyabe'n, eta Ellakuri ("ella"- "ko"- "uri") Audio'n.

"EL", "Ella" zer izan daitekean ez dakit. Lopez Mendizabal'en ustez "larre", gazteleraz "pasto", esan nai duan "ela"ren aldakuntzak dira. Ortaz Elabeia "Lugar Bajo el Pastizal" izango litzake, ta Ellakuria "El Pueblo del Pastizal". Bai ote? "Ela", erderaz pastizal dala egia da beintzat.

Beste bi toki-izen aiek onela zatituko nituzke nik: "Bill-ota", aurrenekoa; "Bill-ateka", bestea. "Ateka" zer dan badakigu danok: "brecha", "Ota", zer dan ere bai, "Ote"ren aldakuntza itz bikoiztatuetan: Ota-lore. Ota-mendi, Ota-uri..., adibidez.

Baiñan ia beti, adibide oietan bezala, "Ote", "Ota", aurrizki lez agertzen zaigu. Zer esan ote nai digu Argota eta Argote toki-izen napparretan bezala atziki lez datorkigunean? Ugaritasuna adierazten duan atziki bat ote dugu?

Arren, irakurle: Zuk, "ote"z ala "ota"z amaitzen diran toki-izenik edo abizenik ezagutzen ba'duzu, jakitera ema'idazu Gazteiz'ko Seminariora idatziz. Norabidetzat auxe ipintzea naikoa duzu: "Seminario Diocesano, Apartado 86"

Gaurkoz, luze goaz-ta, emen bertan amaitu bear ko dugu gure saioa. Jarraituko dugu, Jainkoa lagun, "Euskerazaintza" onen urrengo zenbakian.

\* \* \*

Beste zerbait ere esan nai nuke ordea, eragaillua itzali baiño len. Beste Done baten izena agertu bait zaigu azken unean toki-izen bezala larruki onen lerroen artean: "Sancti Stephani", ots, Doneztebe'ren izena.

- Doneztebe, Elizako liturgian Donerik zarrenetakoa da, zarrena ez ba'da.
- Euskalerrriko baselizetan-da, Elizako done zaarrenganako eraspina ain zabaldurik egotea, Euskalerrri kristautasuna aski goiz etorria izatearen aldeko arrazoia zan On Manuel Lekuona'rentzat. Ez da, arrazoi sendoegia, baiña beste batzuekin batera bere indarra izan dezake.
- IX mendea aski mende zarra da.
- Done baten izena, toki izen biurturik gertatzeko, esan dugun lez, toki

<sup>3</sup> Gerardo López de Guereñu Galarraga: "Toponimia Alavesa". Bartzelona'n. 1989'an.

artan askoz leenagotik ezagutua eta maitatua izan bear du izen ura daraman Doneak.

—Dondisle aran autrigoitarra Euskalerriko zoko urrutienetan urrutienetako zokoa zan.

—Larruki onek ordea, IX mendean, Dondisle'n, bi Doneen izenak, Bi Done zarren izenak gaiñera, **toki-izen biurturik zeudela** aitor dagigu. Eta, ondorioz, ain urrutiko zokoak ez ziran Euskalerrri'ko lurraldeetan Done zar oiek eta oien antzeko beste Doneak, azkoz leenago izanen zirala ezagutuak eta maitatuak, adierazera damaigu, ots, askoz lenago iri zala kristautasuna gure toki iri-kietara.

—Beraz, larruki au ere, Euskalerrira kristautasuna aski goiz iritxi zalaren alde mintzatzen zaigu.

Latieg;tar Bixente





# OGEITA BOST URTE GEROAGO

Atzo goizeko kontua dirudien arren, 25 urte luze joan dira, alajaiña, Arantzazu'n, ondoren ainbat ixkamilla sortu arazi zuan batzar eztabaidatsu bezain penagarri ura ospatu zala. Penagarria diot, bai, orduan ere bein bear eta, Euskaltzaindiak, euskerari buruz artutako erabaki sonatu ura zala medio, zatj-tu egin bait giñan euskaldunok. Sinistreak ere lanak ematen ditu baiña, gure izaeraren oiñarri eta ezaugarri nagusia dan euskera izkuntzarengatik ain zuzen.

Ori dala eta, au da: batetik batzarra ospatu zala ain urtemuga seinalagarria eta bestetik, Euskaltzaindia bera sortu zala ere 75 urte diralarik, bidezko danez, ekitaldi eta ospakizun ugari burutu asmotan dira, iragarritako egitarauak dionez. Bestalde, zenbait euskaltzaiñen iritzi eta adierazpen ere irakurtzeko aukera izan dugu, eta egia esan, ez nator bat emandako arrazoi batzuekin; aurrerago esango dut zergatik.

Luze eta zabal mintzatuak dira "euskara batua"ren jaiotzatik gaurdaiñoiko nundik-norakoaz; aztertu ere bai sakonki egungo bere egoera, eta aurrera begira, naiko kezkatu azaltzen dira. Ara zer dion Mendiguren jaunak: "Niri askotan iruditzen zait Bizantinoen antzera aingeruen sexuaz ari garela, irudipen hori sortzen zait. Zergatik? Gure eztabaidak atseginak izan daitezke, eritzi/iritzi hautatzen, eta horren ondoan gaur egungo haurrak, baita ikastolan dabilzainak ere, ergatiboa galtzen ari dira. Askotan guk eztabaidatzen ditugunak baino askoz gauza larriagoak daude". Eta Sarasola jaunak: "Bi gauza nahasten ari gara, euskara ona edo txarra eta euskara batua edo ez batua. Ados nago askoz ere axola handiagokoa dela euskara ona edo txarraren arteko auzia, baina batasuna ere egin beharra dago. Eta horixe da Euskaltzaindiari dagokionna, huskeria horietan aritu behar du, baina premiazkoa da". Kintana jaunak, berriz: "Dena dela, kalitatearen inguruko ardura galdu egin dugu azken aldian. Komunikabideetan batez ere, uste dut zuzentzaileek eritzi/iritzi erabakitzen aritu ordez, trakeskeriak aztertu eta konpondu behar dituztela. Normatibaz aritu ordez, kalitateaz arduratu beharko genuke gehiago". Eta aurrerago jarraituz: "Komunikabideak esate baterako, irakaskuntzan kontrol nahiko estua egiten baita teorian behintzat, nik ez nuke esango, ez eta hurrik eman ere, komunikabideetan halako galbaheketa egiten denik profesionalekin. Euskal Irratian entzuten den "erlujuz kontra" ez dakit nondik atera duten; ezagutzen al duzUe lekuren bat herriko jendeak horrelakorik esaten duenik? Gisa honetako esakerak asko eta asko dira. Profesionalen baitan, batez ere horiek daukaten erantzukizunagatik eta jendea toxikatzeko daukaten botere izugarria kontuan izanda, kontrolatzaileak erabili beharko lirateke".

Salaketa auek 25 urte geroago egitearekin bat baiño geiago arritu liteke,

eta esan: "Orain arte ez al dira konturatu orretaz?". Bai, adiskide, aspaldi konturatu ziran; eta ori badakigu, ondo asko, "euskara batua" ren istoria sorreratik jarraitu dugunok. Begira bestela, -iñor mindu eta eztabaidarik pizteko iñolako asmorik gabe-, "euskara batua" sortzailleen buru izan zan Mitxelena jaunak berak (G.B.) esandakoak: "Banekien nolako lokatzetan sartzen nuen nere burua". Itz auek ere bereak dira: "Euskaltzaindiak euskeraren batasuna egin dezakela uste izatea... uste ustela da".

Aita Altuna jauna ere onela mintzatu zan bere garaian: "Aurrera atera nahi dugun Euskara Batuari arrixku auxe, alde txar auxe aurkitzen zioat: hots, Euskara Batuaren aldekoak, gaztetxo geralako edo, euskara behar ainbat ez dakigula. Euskaraz bai; euskarari buruz bai, zerbait bazekiagu, apika. Baina euskaraz idazten, euskara bizia, jatorra, zailua, txairoa, gaurkoa, erraza, erabiltzen ez zekiat zenbateraino dakigun. Areago ikasi eta areago idatzi behar diagu. Zenbait zaharrek berriz, euskararen jabe diranak horixe egosten zigutek gazteagoai, eta arrazoi gabe egosten digutela esaten ez nauk ausartzen. Herrikoia goa, jatorra goa, biziagoa, gaurkoagoa behar likek izan, nik uste, gure euskarak".

Ibon Sarasola jaunak ere au esan zuan: "Mucha gente se está aburriendo de leer en un euskera difícil, poco natural, y al mismo tiempo más de un autor se ha retraído ante el temor de tener que emplear un instrumento complicado que le cuesta dominar debidamente".

Oiek orrela, ezibestekoak dira zenbait galdera: euskera bateratzearen aurka ez, baiña, artutako erabaki ura onartzen etzuten zaar jakintsu aien iritziak eta arrazoiak, zergatik etziran aintzat artu? "Arrazoi biologikoak" bear al zuan beste guztien gaiñetik? "Salo bezela" zala-ta, emendako pausoa edo artutako bidea egokia etzala ikusita, zergatik ez eman atzera pausoa bere garaian? Eziñezkoa al zan? Edo, ez al zuan erremediorik...?

Etzuten, ez, ezar jakin nai izan beste erara pentsatzen zutenekin, ez aseran eta ezta amar urte geroago 1978'an Bergara'n egin zan batzarrean egindako proposamenekin ere. Eta, orduan, ate guztiak itxi zizkietenean, Euskerazaintza edo Erri Euskeraren Akademia izenez ezagutzen dana sortzeko erabakia artu zuan talde batek, euskeraren alde lanean jarraitzeko. Baiña gertakizun auek ez dute garrantzirik, eta, zergatik esan...?

Beste gauz asko, bai, esan dituzte eta, aurrekoan nion bezela, ez nator bat, adibidez: "H letra ahula eta mutua izan zala batasunaren koska, eta aldeko eta kontrakoan ikurra izan zan" esatearekin. Kontra zaudenak "H" izkiak baiño geiago kezkatzen zituan izkiaren atzean izkututzen zan pentsakera eta jokabideak. Norbaitek ikurtzat artu ba'zuan, "batua" ren aldekoek artu bait zuten. Ikus, bestela, Haranburu Altuna'k esandakoak: "H" a da euskal iraultzaren simbolo plastikoa". Ondorengo itzak ere bereak dira: "Reconozco que el cambio ortográfico fiene, no sólo incidencia, sino trascendencia política".

Adibide gisara gera dadin, ni neuk topo egin izan dut, bein baiño geiagotan, euskera ikasten zebiltzanen artean, "H" nun idatzi bear zan primeran jakin, eta, esate baterako: NOR era NORK, edo, ts. eta tz. bereizten etzekian jendearekin. Datu adierazgarria benetan.

"H" arekikoa asko ez dala, "J", "LL" eta "Ñ" izkiekin berriz, onela idatzi eta orrela aoskatu, sortzen diran zailtasunak eta naasketak izugarriak dira.

Ez nago ados, ezta ere, orduko zaarrek euskera batzearen aurka zeudala, eta batasunaren bearrik ikusten etzutela uste dutenekin. Ez dut ezagutzen

iñor, ez leen eta ez orain, euskera batzearen kontra dagonik. Aiek, ordurarte egindakoak baztertu eta molde guztiak austeia zan onartzen etzuteria, alde batetik; eta bestetik, aiek, eta ainbat euskaltzalek, gauetik goizera euskeraren batasuna egintzat artuta, "batua" derrigorren ezarri nai izatea salatzen zuten. Lenengo unetik konturatu bait ziran erabaki eta jokabide ark ekar zezakeen auzia etzala txantxetakoa izango.

\*\*\*

Bestalde, une egokiagorik ezin zezaketean aukeratu; orduantxe ari diran/giñan, gurasook, arazoa arazoaren gaiñean, lana galanki egiñaz ikastolak aal zan moduan martxan jartzen. Eta, landutako lurberri-berrian azia ereiten dan antzera erein zuten "euskara batua" ikastoletan. Gurasoei etziguten galdetu nai genduan edo konforme geunden ala ez, eta esan oi dan bezela, "sudur zuloetatik" sartu ziguten. Baiña, azirik onena edo landarerik ederrena landatuta ere, zaintzen ezpada, eziñezkoa da fruitu eta emaitza onik ematea. Ereiteko eskubidea zuanak, ez al zuan zaintzeko ardura ere bere gain artu bear?

Elburua, mundu guztiak "batua" erabiltzea zutelarik, arro egoteko motiboak badituzte, lortu dute-eta; ia eunetik eunekoa dala esan bait daiteke, idatziari dagokionez beintzat. Baiña oroar artuta, arro egon al daitezke gaur egun erabiltzen dan euskera eta bere egoerarekin? Izkuntza bezela, narraskeria eta utzikeria dala medio, bere aberastasuna eta nortasuna galtzeko arrixku larrian ez ote? Nik esan bear ba'nu, azken urte auetan ze euskera eta nolako joera kaltegarriak artzen joan dan arduratu gabe, "batua" ren erabilpena lortzen egin dira aalegin guztiak. Eta, kasu ontan bezela, gauzak presakagi eta itxusmus-tuan egin nai izaten diranean, eskuetatik iges egiten dute askotan. Orixe gertatu zaie euskerarekin eta ez naiz batere arritzen kezka bat baiño geiago sodaraztea.

Bestalde, itzegiteko ere euskera "estandarizatu" bat bear dala esanez ari dira, eta, jakiña, "batua" izan bearko lukela ez dago asan bearrik. Euskaldunak izanagatik, askok, ez dutela ulertzen...? Ze ajola dio? "Batua" darabilte-nei berriz, ez eman, Jainkoagatik, esate baterako: Azpeiti'ko, Oiartzun'go edo Ataun'go izkerarik. Utikan jatorri kutsuko berezitasunak! Euskalkiak? Galtzen ba'dira ere, bost ajola! Biar edo etzi, bazirala esango du norbaitek eta kl'tto. Eta, ori, bazekiten, bai, ondo asko: "batua" k euskalkiak irentsiko zituala; iragarri ere bai, Aita Villasante berak, onoko galdera oni emendako erantzunean: —"Aita Villasante: euskalki gaiak jasotze au nun da gaur bearezkoen?" —"Danak esaten dute prisa aundiko gauza dala au, zergatik emendik urte batzuetara ezinda egin toki batzuetan. Zergatik? Bertako izkera berezia galdu egingo delako. Zergatik galduko da? Edo erdera batuak edo euskera batuak irentsiko duelako. Gauzak orrela dijoaz: begien bistan dago ori"

Euskalkien alde itzegitea komeni zitzaientean ordea, arritzeko moduko adierazpenak badira egiñak: "batua" itzegiteko sortua ez dala, antzerki naiz eleberrri idazketarako eta literaturarako ez duala balio eta abar. Ara adibide batzuk: "La unificación del euskera se había abordado más bien con miras a crear un lenguaje normalizado, de cara al uso en funciones sociales, administrativas, científicas, docentes, que no en la actividad literaria". —"En la creación literaria es necesario tener en cuenta los registros expresivos de cada escritor y dichos registros no siempre coinciden con las cautas estandarizadas del Eus-

kera unificado, que a efectos literarios resulta, frecuentemente un Euskera neutro, artificial, casi inversosímil". -"Absurdo e inviabile el Euskera unificado para ser empleado en el diálogo teatral". Orain, zerbait aldatu ba'litz bezela, zer izango eta... euskalkiak dira ezertarako balio ez dutenak...

Orain dala pare bat urte Juan Manuel Etxeberria Aiesta, Deusto'ko irakaslea, era ontan mintzatu zan: "Batuak beste adjetivo bat bear luke ondoan: "aberatsa". Euskalkiak bizi dira oraindik, eta ahozkoari begira garrantzia handia dute. Baztertzen baditugu, idazten dugun bezela esateko arriskua dago, eta hori, fonetika aldetik, gauza benetan harrigarria da. Jende asko dago horretaz konturatzen ez dena. Telebista edo irratiko euskera zein izan behar duen erabakitzerakoan, herriak badu zer esanik, eta hori ezin da ahaztu". Arrazoizko adierazpenak dudarik gabe.

Nunai eta beti saiatu bear genduke bai idazterakoan eta bai utzegiterakoan, gure izkuntza txukun erabiltzen; duan garrantzia eta eragiñagatik, zer esanik ez komunikabideetan. Badakit zuzeneko eta pressakako emankizunetan, batipat, asti gutxi izaten dala; baiña, gero ikusiko dugunez, ez da asti arazoa. Geiagi luzatu gabe, orra adibide batzuk: "Ezta gutxigatik iritxi baloiarengana". "Atzeláriak moztu du baloia". "Aurreko partiduan ere jokoan egon zen". "Lesionaturik zegoen jokalaria dagoeneko korrika dago". "Atezaiñak eztu ondo artu baloia". "Azken kartutxoa izan daiteke etxeko taldearentzat". Eta-bar, etabar.

Ezin obeto datorren itza erabiliz, zergatik eman ainbat "ostikada" euskerari? Euskeraz ari geranean, ainbat zentzugabekeri jaulki ez dezagun, zergatik ez jarri arreta geixeago? Ez al da berdin-berdin kostatzen esate baterako: "Gutxigatik ezta iritxi baloia arrapatzera", edo, "gutxigatik baiña, eztu arrapatu baloia". "Atzelaria jabetu da baloiaz", edo, "atzelariak urrundu du baloia". "Aurreko partiduan ere jokatu zuen", edo, "aurreko partiduan ere taldeko izan zen". "Min artutako jokalaria dagoeneko korrika dabil", edo, "etzuen min aundirik jokolariak, bereala korrika asi da-eta". "Atezaiñak eztu ondo arrapatu baloia", edo, "atezaiñari iges egin dio baloia". "Azken aukera izan daiteke etxeko taldearentzat", edo, "etxeok aukera au galtzen badute, kitto; partidua amaitzear dago-ta" esatea? Ez balekite utsa! Eta, jakinda, zergatik mintzakera ori? Belarriak zenbateraiño mintzen dizkiguten jakingo ba'lute...

Emen eta orain, ez dugu auzitan jartzen edo eztabaidatzen "batua" bai ala ez; zenbaiten mintzakerak euskeratik zenbat duan baizik. Ez dugu esan nai, ezta ere, idazten dan guztia txarra danik eta komunikabideetako izlari denak gaizki itzegiten dutenik; badira, zorionez, beren eginkizuna ondo eta txukun betetzen dutenak. Leentxeago genion bezela, komunikabideek duten garrantzia eta eragiñagatik, ordea, ezinbesteko baldintza izan zeregin ortan diarduten guztiek izkuntza eta mintzakera zaintzea.

Danen gustokoak ez dira izango, agian, baiña, luze eta zabal eman ditut nere iritziak; eta arrazoi auengatik eman ere: euskaldun euskaltzale bat naizenez, ortarako eskubide osoa dudala iruditzen zaidalako; euskera dala-ta, azken ogeitabost urte auetan asko sufritu dudalako, eta, gaur eguneko egoerak, eta batez ere gure izkuntzaten etorkizunak benetan kezkatzen nauelako. A...! Ni, gaztea nintzan orain ogeitabost urte.

Joxe Aierbe



# GAU-AR RANTZA, OLAGARRUA ETA ADOKIÑA6f

(Magnetofoiaren bidez artutakoak). Deba eta Urrilla. Urtea 1993.

"Pedro Gorritiberea Goizeru. 64 urtekoa, Arronamendi baserrikoa.

- Zu zein zera?
- Pedro Gorriberea.
- Eta zu nun bizi zera?
- Orain Deba'n baña Arronamendixan.
- Eta Arronamendixa zer da?
- Arronamendixa da zatiuta Arrano Mendi da. Arranomendi kanteria zan or. Orain Deba'n baña an bizi ta orain ere an animalixak daukat. An jaiotakua eta andik Deba'n bizi eta orain e antxe animalixak daukat konejo ta txakurra ere badaukat. Ta egunero ara eta gero arrantzara.
- Ta ori itxasotik gertu al dago?
- Ez dakit ba, eun metro edo egongo da.
- Eta ordun gau arrantzara joaten zera.
- Ba askotan ere despeskara baña olagarrotara; ta gero arrantzara; baita kañaberiakin ere bai, lau karrete daukat eta itxaso ona ikusten detanian joaten naiz zera arrantzara eta gero gabaz ibiltze gera gu, alde batera proibittuta dago, baña karburuakin karburu-ontziakin eta gero sakua ere ematen degu arpoia, arrankasixa esaten diogu, arek izaten ditu bost zera banderillak bezelakuak eta aiekin arrapatze ditugu ba itxaskabrak, lupiñak eta baita zeak ere lasunak ere bai, baita kongrixuak ere, zea aingerak ere bai, ikusten degun dana gabian. Bai.
- Gaueko arrantza ori esplikatu iazu zer dan. Eta arraiña ekartzeko zer eramaten dezu?
- Arraiña ekartzeko sakua. Sakua ematen degu eta gero ze ori nai degu-nean zea arrapatzeko kiskilloia, bolsia eramaten degu kiskilloia ez aldatzeko (?)... Bi gau-arrantzu klase dao: bat da iilargi berrixan eta illargi betian. Illargi betekua eskasa da porque illargixak berak argi egiten du eta arraiñak igesi egiten du, baña illargi berrixan ez; illargi berrixan arraiña zuzen-zuzen etortzen da argira; baña gero beste bat dao, arrainzuritegia esaten dioguna. Ori iñork ez zekiten egiten. Ori neuk ikasi nuan amuak ipintzen ari nitzela. Ori zan sei egun, illargi berritikan sei egun, ordu bitikan inguruko bajamarra; beste ori danak

bost egun len<sup>9o</sup> arratsaldeko zazpirak inguruko zera ori arrainzuritia. Ori da sartu ta ura gora datorrenian, sartu uretan, arraiña dana baztarreratu sarbo, lupin da dana ta gero baztarra jotzen duanian ara orixe (arrankasixa) klabau ta orduntxe gaizki, saltoka asten da arraiña. Aa Kristonak eginda, kantidadia arrapua det arraiña nik orrela.

- Eta gaueko arrantz ortan e, argirik ez danean, orduan, putzuak egiten al dira?

- Bai, ta tontuena itxaskabria, goxuen ere bai, baña tontuena ere bai, aieketa gañean kolpia jo arte aura ez da mogitzen; orain kolpia ematen diozun garaitik, zera egiten du koloria kanbixau bezela eta aitzen kontra eskutau egiten da, bañan tonto-tonto egoten da, ura arrapatzia zailla ez da.

Eta arrain zuriari nola botatzen diozu kolpia?

- Arrain zurixari? Segun ze zera daon, ori konparazioko metro ba dao, ba zera berrogei zentimetro bai aurrerago kolpia tira biar da; ortarako norberak pentsau golpe utsa ba da gauetan arrai zurixak jotzen dun golpia, orduan arraiñak egiten du aurreratu; baña orrelaxe arrapatzen da arraiña; baña bera-berari ez zako jo biar. Orain ur txiki-txikia egon ezkerro, bera bistan egon ezkerro, orduan burura golpia aurrera bota biar zaio.

- Aurrerago bota bear zaio?

- Kolpia aurrerago bota biar zaio baña ez dakizenak ba egunetik egunera eutsiko dio eta bueno, parre arekin parre edo egin biar. Ori arrapatuko ez det ba? Golpe utsa bota biar da. Ori ikasi arte ez diteke sinistu ere batek kolpia jotzen du arraiñar eta orduan eztezu araña arrapatuko, aurrerago botatzen ez badezu, baña aurrerago bota biar zaio.

- Eta zuk bakarrik egiten al dezu gau-arrantza?

- Bai badet laguna baña en general zera bakarrikan.

- Eta beste basarririk ba'dago kosta onetan gau-arrantza egiten dutenak?

- Bai an ee, zera orain ez dira ibilliko baña Aaztikoak eta gero Pikotekoak...

Orain kaleko asko asi da e. Bai lengo egunian Zumaiaetik ere etorri ziran... Gero amengo gaztiak ere bai etorri zira txala (txanela?) artuta; baña ez dakie arrañetan, ez dakie.

- Orain olagarruren berri emai dazu.

- Olagarruena, olagarruena gauza tristia da: ogetabost olagarru bakarrik arrapatu ditut emen nik aurten,

- Ogeitalau olagarru gutxi dira?

- Bai orixe gutxi dira. Nik arrapatu ditut aurten eun da ogeta zazpi olagarro Mutrikutikan, zera Mutrikutikan, igual da, Saturrirandik Mutrikura eun da bie ta en cambio Arronamentitik Atxurira arrapatu ditut ogeta bost bakarrik eta ez det uste geixao arrapatuko ditudan datorren urterarte. Au da kontaminaziva, auxe da kontaminaziva. Ta juendiak uste du lziarkua, zera Sakonetara juten dana. Sakonetara juten dan zeak kontaminazivak ez dator Atxurira, ura dijua atzetikan Zumaialdera eta Deban, au asko azagutia da e, baña gero an ee iñor ez litzake bañau bear, iñor ere aik eta olagarrua sartu arte. Porque olagarrua daukan debilidadia, badakizu nun dan? Begixetan, begixak erreten diue olagarruai. Ta olagarruak egin ezian, arraiñak jaten du olagarrua. Ta ori dagon bitartietan, inork ez luke artu biar bañua. Ori da Naturaleziak berak erakusten dun gauzia.

- Bañoa artzeko.

- Bañua artzeko. Ori derrigor atera dutela porque olagarruai begixak erreten dio, baña nekoriai ez; nekoriai gogorragua dauka eta nekoriai aguanta-



tzen du; baña olagarruai begixak erreten dio ta da gero orduan arraiñak jaten du olagarrua.

- Eta olagarrua beti txoko batian egoten al da?

- Ez, ez, ori, bere zuloak billatzen ditue. Ori bai: bere zuloak berak billatzen ditu. Baña, olagarruak, konparazio baterako, nik aurten, nola esango dizut, garagan txikixan, zer ori Aitzurixan egunetatik (?) zea ori aitzaurdirarte olagarro bat ez da egon; zikiñak sartuta or daude txokolatia bezela eta olagarruak ez du nai zikiña; olagarruai gustatzen xako garbixa eta arek, urtero-urtero jendeak bakaxiual artu arte, bere zulora sartu arte. laz artu nituen nik Santixao bueltan; aurten arrapau det lenengua ba agostun amarrian eo, arrapako nitun bi edo iru bakarrik ta gero, bate uste gabea, aizkeneko marixa onetan Atxurixn ibilli nitzan ni baña markaik ez, ta alperrik jutia; baña zeozer nai diau, ia zeozer aterazen dan nekoria edo, eguenian juantizan ta amar, kilotik gora dakak; gero uno ochociento bai...

- Baña, olagarrua?

- Bai olagarru ederrak arrapau ditut.

- Eta, olagarrua nun egoten da?

- Olagarrua egoten da aitzen azpitan; bueno, aitzian zuluana. Itxaso txarra dagoanian egiten du arek aitxa berena tirau baña, gero dauka defetua aitxa tiratzerakuan, arnasia tubo batetik irtetzen du zea batek e eta arek botatzen di ba ondarra ta gero bere kaka, bere zea, zer esango dizut, amaruna bezeloko-xea botatzen du, zuritasun zea, ta ura ikuste detanian badakit ua zer dan. Nik ez det trapu zuririkan bear. Batzuk trapu zurixakin juten dira, kañaberian puntan trapu zurixarik. Nik ez det alakorik bear. De repente iartzen diot zea nun dagon, aien markak. Beste batzuek eukitzen due kamarra peluduak zea, kamarra azala janda o sea kapatxo zea beltz auen azala usten bait du: Emen ibilli dek. Orain itxaso txarra dagoanian, neuk ere ez det orrela askorik arrapante; baña itxaso baria dagoanian, de repente danon markak, bai...

- Baña zuk badakizu karramarua, zea olagarrua, nun egoten dan gutxi gora beera. Ezagutzen dituzu tokiak.

- Bai, bai, bai, Jesus tokiak... Neuk ipiñita tokiak eta putzuak; onelako putzuan onelako zuloa ziok. Ni juten naiz tapa tapa tapa. Lengo baten joan naiz Zumaiara eta neure zea pariente ori ezkondata dagona, ta aiek, zumaiarrak, ikusi nai eta neu ez nitzan portunau. Aiek esan zien: Ori tipua, ori; egon bear diau arekintxe; arek artu ta zulotik zulora juten dek eta dak bat eta dak bestia... ta berak guk, berriz, trapu zurixakin atera ezin... Ori aiek eta zeatik etorri zeatik Atxurira, ori gogoan artuta zulo danak... Bai.

- Zu zulotik zulora ibiltzen zera.

- Bai, kapitan batek bezelaxe, igual igual. Zer esango dizut, Jainkoak arte-rakoxe ipiñitta.

- Ta gero olagarruakin zer egiten dezu?

- Olagarruakin? Sekau. Baña ori sekau aurten ez det sekau, ez det ezer arrapau-ta sekau ori, orain kamaran sartu. Ta orain dala bi urte Mutrikuko zeak, ori nola esango dizut, Aitzetakua gallegua, zea gallegoa dao Aitzetakua-kin eskonduta eta arek esan zidan: - Gorriti, zer egiten diok alagarruai? - Jo ta zea preparauta... Keba esan zidan, Orain ez: olagarua artu ta garbiu eta sartu zea kamaran eta euki konparazio baterako amabost egun edo illebeta, urte bete berdin da; baña ola euki eta ez daukak jo bearrik eta askoz obia olagarrua, biunagoa.

- Baña, lenago?

- Lenao jo biar izaten zan, zeakin egurrakin jo ta benga.  
-- Eta nola sikatzen zenduen olagarrua?  
-- Ba olagarrua sikatzen da, artu ta sartu zea lapiko baten, artu tapia ta tapapian euki an, sartu ta euki iru edo lau egun eta artu tapia, onezkeru ondu-da ta gero gorri gorri gorri egiten da, usaiña txarra, kalia ipiñi ta gero ura artu ta balda batera, zea egin garbiu, artu ta zabaldu zortzi lerro, erdi-erdian, eba-gia egin eta sokakin paretian ipiñi... Aurten ez iñor jun; ies bai arrapatu zituzten baña aurten ez du iñor arrapatzen lanik Suraitxikik eta...

—Eta zenbat lerro ditu?

—Zoztzi lerro.

—Ta gero zer egiten dezu.

—Sekautakuan?

—Bai.

—Sopia egiteko ta baita patatakin eta zea bueno du gustua...! Aizkeneko zean lau millan pesetan da saltzen zitun...

—Baña, zu ez zera berez arrantzale. Zu zera afizionatu bat.

- Bai afizionatua.

—Zer lan egiten dezu?

-- Ara, begira orain amaika urtetik katean (?) jardutzen det nik ogeta amairu arte; baña kanteran ibiltzen giñanian orduan ogeita amairu urte...

—Baña zure etxea baserria da e?

—Ez, baserria ez; kale-baserria da. Ori zan obreruai egindako etxia. Or zan orain dala irurogeita amar bat urte, Gipuzkoan zanik industriarik aundixena zan Arronamendin. Or irureun bat lagun lanean ibilli ziranak adokiñak egiten; baita zea eta Txirrita ere.

— Eta adokiña zertarako erabiltzen zan?

- Adokiña kaliak egiteko. Pentsau besterik ez daukazu, orain, zer esango dizut, dala irurogeta zazpi edo zortzi urte ogeta bost milla adokin(metro), zea Astauriaserako, Oviedo'rako ogeta bost milla metro, zea oiek ogeta bost kilo-metro dira oiek eta gero momento artan bertan beste zazpi milla metro Vitoria-xako. Ta zuen atta ta or ibiltzen ziran zuen aitta, ta guriak gabarretan kargau ta Lira udetan kanpuan...

Zer barku zan?

- Barkua ez dakit Kontxezio ez zan. Aittak esaten zien.

—Bai Kontxesi zan. Nere aita ibiltzen zan karriotan.

- Aitta guriak e, berak e kontatua: Zer da ta, gabarria kargauta lotzen ari dala, itxasua kanpuan pixkat bat mogitu eta gabarria loten ai dala, zeatik artu txikotak ta jota aidian bota eta potzura erori. Ori berak atera zuen kanpora eta bere onian etorri zanian, kabrak eman zizkoien, kabra txikixak; kabrak arrapa-tzen ibiltzen oi zian, ta sekulan bere bizitza guztixan ez zuela obiak jan. Ori ait-tak maikiña bat bider kontatu zuen.

Emen kanterak asko zien: Txorrotxena bat, Ama Birgiñabistan parian Txo-rrotxena, gero Txarturiña, gero Simonen kanteria, gero Lezamena, gero zee-kua ori ltxuspukua eta gero Usarrandikua ere bai. Kantera asko zan orduan emen.

Kantera asko zegoen, baña kantera oiek nun daude Itxas-ertzian ala barruan?

- Itxas-ertzian, itxasuan bertan... Bai, makiña bat aldiz esan zuan gure ait-tak...".

## Argitu bearrezkoak

1/. Deba'ko Zumardiaren asieran ala amaieran (nundik zatozen) kilometro baten luzeroko tunela dago Zumai aldera. Tunel orren amaieran, itxas-ertzean, etxetxu bat dago. Orixe dezu histori onetako Arronamendi. Adokiñak egiteko kanteria edo arrubia zegoen or. Egiten ziran adokiñak tren-bidez ala itsasoz eramaten zituzten. Itsazoz gabarra batean itsas-barrura eta ara etortzen ziran barkuak adokiñak kargatzeko. Nere aita "Kontxesi" ontziaren kapitana zala etorri oi zan bertara.

2/. Gau-arrantza, bere izenak dionez, gauez egiten dan arrantza da; arpoiez egiten da. Arrantza ori egin dute itsas-ertzeko baserri guztiak. Baita prehistorian inguru oietako leizeetan bizi izan ziran euskaldunek ere; billatu dituzte, beintzat, Deba'ko kobeetan ezurrezko arpoiak. Eta neronek ikusi ditut Mendata baserrian, Iberduerok erositakoan, (Nuklear Indar-gaillu bat egiteko asmoz), gau-arrantzarako tresneri guztia nekazaritzako lanabesen ondoan, oso txukun ipiñita. Era orretara auxe gertatzen da; itsas-ertzeko baserrietan euskaldunen histori eta prehistoriko lanbide danak irauten dutela (arrantzale, eiztari, artzai eta nekazari, danak batera).

3/. Gure alkar-izketako gizona, Pedro Gorritiberea, langille bat izan da; ez nekazari eta ez arrantzale. Alaz ere, bi ogi-bide oien lanak egin ditu bere etxe inguruan. Aita iziartarra eta bere ingurukoak ere bai; ta berak itziartar egiten du; baña, badu Deba-kaleko kutsua ere.

## Aren euskal mintzoa

Itz iar'ko baserriek duten jatortasuna du bere mintzoak, Deba'ko kaleek ez dutena. Baña badu kaleko kutsadura ere:

XA erabiltzen du IA'ren orde: Arronamendixa, animalixak, arrankasixa, kongrixua, barrixan, zurixak, txikixa, Atxurixa, Santixao, azpixan, Vitorixako, marixa, kongrixua. Ez dira geiegi ordu-erdiko itz-jario baterako.

BIAR esaten bu BEAR'en orde: Bota biar zaio, atera biar dutela. Beste bi aldiz ere bai. BIAR ori Deba-kalekoa da eta Bizkaitik etorria, beste bi esaera auek bezela: Daoz eta Gustaten xako.

ERDAL ITZAK: Porque, bi alditan, baña esaten du Bait eta - ta ere, en general, según, igual, en cambio, de rigor, bajamarra, naturaleza, de repente, qué va, uno ochocientos, konparazio, bueno, momento, sikau, golpe. Kolpia ere esaten du.

ITZ-MURRIZKETAK: Aurrerau, diau, garbiu, lenao, sekau, kanbixau, arrapau, portunau, ematen (eramaten orde), eo (edo), ua (ura, zein dan esateko), ziok.

ITZ-"KATXABAK": Iru itz erabiltzen ditu berbetarako "laguntzaille": ZEA eta ZERA, amazapi aldiz, ZEATIK birritan, ZEAN eta ZEEKUA bein; E, EE zortzi aldiz eta ORI, sei aldiz.

Gelditzen dana ezurgabeko urdaiazpikoa da: Euskeraz jator egiten du eta jatortasun ori Itziar'tik datorkio; kutsadurak, berriz, Deba'ko kaletik.

Esanaldi jatorrak ipintzekotan, kutsaduratik libre daudenak ipiñi bearko nituzke berriro.

Arrinda'tar Anes'ek



# AZKOITIAK BATZUEN ATERALDIAK...!!!

(Gertaerak)

1/. "PITTIN" zuan bere izena Etxetxoneko txakurrak, eta ezin aundia izan izen orren jabe zan txakurra.

Neska-langille bat zan Matxo, ta egunero eramaten zuan lantegjra bere amak gertatzen zion ogi-bitarteko bat. Egun artarako gertatu zion ogi-bjarteko txorizo-muturra, ain txikia iruditu zitzaion Matxo'ri...

Etxerakoan onela esan zion bere amari:

- Zer gertatu zaizu gaur, ama?

- Egia dion, erantzun zion onek. Zartagira botatzerakoan ez zaiten aintxikia irudjtu. Gero, ordea...

- Egia esango dizut, bada, ama... Ortxe ikusi det Etxetxoneko Pittin, eta arek-berak ere nere ogi-bitarteko txorizo-muturra baño aundiagoa zeukan bere "zera" ori... Ulertzen, ama?

- Bai, Matxo, bai...

2/. Biak ziran ezkongaiak, eta biak gizen-gizenak.

Amabosten-bat urte geiago izango zituan bata, besteak baño.

Oraindik zapjak jazten zituan bere illobatxo batekin agertu zan, igandeguardi batean, bietan gazteena. Eta orra-nun asten zaion orruka-negarrez bere illobatxo ori.

Alperrikakoak ziran izekoaren alegin guztiak. Ume ark ez zuan ixildu nai!

Eta orduan asi zitzaion albotik zirika beste nezkazarra:

- Orrek bularra nai du, Arantxa...!

- Zergatik ez diozu ematen...?

- Eman zaiozu, ta bereala ixilduko zaizu!

Aspertu zan Arantxa jardun onekin, eta onela erantzun zion:

- Eman zaiozu zuk, nik baño aundiagoak, eta beteagoak dauzkazu-ta!

Eta biak neskazarrak izaki!!!

3/. Neskazar, birgiña-birgiña oietako bat zan TEIXA.

Etxeza'n egiten zuan lana,

Egun batzuek besterik ez ziran, Etxeza'ko langille bat, neskazar antzeko batekin ezkondu zala. Ta ori zala-ta, broma pixka-bat egin nai izan zioten Teixa'ri bertako bi langilleak:

- Zuk zer uste dez, Teixa... Lengo-egunian ezkondu ziran oiek "asmatuko" dutela, edo ez dutela "asmatuko"...?

Eta Teixa'k bat-batean:

—Zergatik, ba, ez dute "asmatuko"...? Zuk, beintzat, orduz-leen "asmatu" zenduan, eta ez da ain-zailla izango...

4/. Eta arrigarria ba'da ere, TEIXA berarena da basta ateraldi au ere. Ez zi-tzaigun emen ain-zorrotza agertu!

Bere lagun betekin zan.

Uxula-baserriko zelain, errepe aundia bete-betea zeukan bel bat ari zan !arrear...

—Aizu, Teixa... Ori zer da...? Beia ala idia...?

Zergaitik galdetzen didazu ori...?

— Zergaitik galdetuko dizut ba! Beia ala idia dan jakin nai dedalako...!

Eta Teixa'k bei aren errapea erakutziaz...

— Ez al'dezu, zuk-zeorrek, umea egiteko dagoala ori, garbi-garbi ikusten...?

5/. Emakumea, alarguna zan eta gaztea oraindik... Gizonezko-askoentzako tentazio berri bat...! Anak zeuzkan, ordea, zaiñ-miñak zatartuak...!

Abarketak erosi bear zituale-ta, aberketeri batera joan zan bein-atean, gure emakume-alargun au.

Abarketak aukeratzen ari zalarik, ez zion beste emakume batek au-bestetik albotik esaten:

—Oiek ditun, oiek anak...!

—Oiek ditun, oiek anak!

—Oiek ditun, oiek anak!

Aspertu zan, letani onekin, gure alarguna, eta bizi-bizi erantzun zion:

—Ago ixillik, neska! Oraindik, beintzat, etzidan gizonezko batek ankarik eskatu-ta...!

6/. Gona-motzak zirala-ta, bizi-gaiztoa ematen zion amagiarreba batek bere errañari...:

—Izan ere, gaurko-emakumeak ez daukazute lotsarikan... Eseritzen zeraten bakoitzean, agirian uzten diozute, ikusi nai ba'dizute beintzat, ipurdi osoa...! Leen ez zan olakorik...! Senarrarentzat bakarrik izaten ziran leen gauza oiek, eta mantapean aientzat ere...

Eta bai errañak askar erantzun ere:

—Bai, ama, bai! Orregaitik dira zure seme oiek, manteperako obeak...!

7/. Arotza zan Joxe Manuel Aldako.

Oe bat konpondu-bearrean zeukatela-ta, Granada'ko Dukeen ETXE-BEL-TZERA deitu zioten bein...

Kontua-bialdutzekoan (erderaz bialdu bear izaten ditugu guk, euskaldunok, gura kontuak) onela ipiñi zion kontu-agirian Joxe Manuel Aldako'k:

—Por unas cosas que le hice en la cama a la Señora Condesa 150 pesetas! Ba'dek garestigorik...!

8/. Ba'da Azkoiti'n emakume bat, arraindegira joan eta an beste iñor baldin ba'dago, onela ekingo diona beti...:

— Amalita, tienes merlu...? Y chipis...? Y angulitas...?

Eta besteak joan, eta bera-bakarrik gelditzen danean, onela esaten duana:

—Amali...! Jarri-an libra-erdi bat tolla!

9/. Azoka-plaza erdian ari-zan, beste bein, izketan au-bera lagun betekin. Ba'zuan, orduan ere, arrokeria pranko...!

- Egia esango diñat! Ementxen natxion, zer-egin asmatu ezin! Joxe getaria-  
rreanean legatz aundi ta prexko-prexko bat ikusi diñat, eta uraxe, oso-osorik,  
erosi edo ez, natxion...!

Eta orduantxe, ain zuzen, deadar au egin zion Joxe getarriarrak bere arrain-  
degitik:

- Aizazu, emakume! Txipiroi-konjelatuak ekartzeko esan didazu zuk, ez  
al'da ala...?

10/. Berak asmatua bezela kontatzen zuan Profesionaleko eskolan "Gazte-  
lu" mutil-koxkorrak kontu au.

Lengusu bi joan ziran bein soldadu... Bat, bestea baño leentxuago, bañan  
kuartel batean gertatu ziran biak.

Etorri zitzaion "bandera juratzeko" ordua bateri, eta galdera au egin zion,  
bandera erakutziaz, kapitanak:

- Qué es esto,..?

Ura bandera bat zala esatea, gutxi iruditu zitzaion azkoitiar-soldadueri, ta  
zerbait-geiago esatearren, onela erantzun zion kapitanari:

- Un palo con un trapo bicolor!

Zapla! eman zion kapitanak belarrondoko bat!

- Esta es tu madre! Y debes estar dispuesto a dar tu vida por ella! Quedas  
arrestado!

- Zer dala-ta arrestatu aute?

- Ba al'zekiat, ba, nik? Banderea erakutsi ziak kapitanak, eta banderea zer  
dan galdetu! Ondo erantzun zioat nik, nere ustez, bañan ark "banderea nere  
ama dala" esan zidak, eta orregaitik bialdu natxiok kalabozora!

- Ire ama dala banderea?

- Bai, ala esan zidak: ésta es tu madre...!

- Ortaz... nere... izango dek?

Etorri zitzaion beste oni ere, "bandera juratzeko" ordua, ta galdera berdiña  
egin zion kapitanak oni ere. Eta baita mutillak azkar-asko erantzun ere:

- Esa es mi tia!

Zapla! Eta arrestoa onentzat ere!

Eta lengusu biak kalabozoan:

- Izan ere, kapitan txatxu orrek nundik jakin bear dik, ire ama ta nere ama  
aizpak diranik biak...?

11 / . Leengo garai artan iru eske egiten ziran elizan meza bakoitzean.

- Eliza onen iraupenerako!

- Purgatorioko animeentzat!

- Mixerikordientzat...!

Baserritar ura, bost irukuartokoekin etortzen zan beti mezatara. Iru, irukuar-  
toeko, mezatan botatzeko izaten zituan, eta beste biak, Ixpixuaneko trabenan,  
baxo-erdi bat edan, eta ogi-zati bat jateko.

Igande artan, ordea, laugarren gizona agertu zan eskean:

- San Jose'ren argiarentzat...!

Laister oartu zan gure baserritarra, ez zeukala, egun artan, ogi-zatirik jate-  
rik, eta onela esan zion, asarre, eskean ari zan laugarren gizonari:

- I, esan akiok San Jose'ri, ni bezela, goiz oeratzen ba'dek, ez dikela, ark  
ere, argi-bearrik izango!

12/. Mixerikordian il zan TORI.

Iru-iturrietan egoten zan zoru-josten. Adar-jotzallea zan Pako Txakolin, eta ez zuan TORI pakean uzten.

- Goizeko seirak-ezkero ago emen, eta ez dituk, oraindik, bi zoru besterik josi alper-aundi orrek!

Aspertua zukan Tori, Pako Txakolin'en "lata-bedeinkatu" onek, eta onela esan oi-zuan sarri:

- Nai ez duana, aittuko zidak, ba, orrek egunen batean...!

Eta Luis Errexillek albotik:

- Ortan aiz, i, beti!

- Aittuko ziak, ba...! Ta ikusten diaten bezín-laister gañera;

Eta goiz batean, Pako Txakolin andik igarotzean, onela esan zion, asarre, Tori'k:

- Ala, INDIVIDUO!!!

Eta lagunari gero:

- Aundixe esan zioat, ba! Etzik ez, geiago, ezer esango...!!!

13/. Txukun-txukun oietakoa ez, bañan igeltseroa zan Otxelu. Paretak baño zuriagoak uzten zituan ark lurrak!

Etxe batera eraman zuten bein zuriketara, ta etxe artako etxekoandreaki garestia iruditu zitzaion Otxelu'k ekarri zion kontua...!

Eta Otxelu'k:

Ezin kejatuko zera, emakume! Lurrera eroritako igeltsuaren kontua ez dizut, beintzat, sartu-ta!!!

14/. Leen, ostiraletan, Kristo'ren gurutzeko eriotza oroituaz, il-kanpaia jotzen zan Gipuzkoa'ko parroki guztietan, eta Azkoitikoan ere bai... Gizonezkoak, zeuden tokian zeudela, txapela kendu ta "kredoa" errezatzen zuten orduan. Eta ez gaurko kredo motz-motz ori, leengo luze-luze ura baizik. Otxelu'k, ordea, txapela kendu-orduko, jazten zuan berrIro!

- I, Otxelui "Kredoa" ain-azkar errezatzeko, zer-arraio esaten dek ik? esan zion, bein, bere lagun batek.

- Zer esango diat, ba! erantzun zion Otxelu'k "Creo" esaten diat nik. Eta naikoa dek ori! Ibilliko ote baituk, ba, "igo zala, ta jetxi zala, jetxi zala ta igo zala" esaten? "Creo" esan ezkerro, dana esana zioak!

15/. Don Pedro'k, Azkoiti'n izan genduan apaiz arrek, gurutz-bidea egiten ikusi zituan emakume batzuek GABON-JAIETAN, eta aiengana joan eta onela esan zien:

- Jaiotzea besterik ez du egin, eta ez zazute, mesedez, ain-azkar il!

16/. Baztarrika-aldean bizi ziran Plorentiñe-ta...

Gau batean, argiak itzali, ta illunpe osoa sortu zan Azkoiti'n.

Zer ordu ote zan jakin nai-ta onela esan zion Plorentiñe'k bere aizpari:

- San Martin-torreko erlojuan zer ordu dan, ikusi zan!

- Nola ikusiko diñat, ba, argirik ez zegon-da!

- Argiarena besterik ez ba'den, artu zan kandela bat!

Eta San Martin-torreko erlojuan zer ordu ote zan ikusteko, kandela bat eskuan irten zan balkoira aizpa ori ... I!!

17/. Ba'zan, Azkoiti'ko Mixerikordian mistika-antzeko neskazar bat.

Azkoiti'ko seme bat zan, orduan, an-bertako kapellaua, ta ez zuan gure gure neskazar onek. ezerगतिक-ere, kapellau onekin konfesaru nai. Ta iñork ezin zuan asmatu, zergaitik zan neskazar onen nai-ez au...!

Bere lagun bat joan zitzaion, bein, ikustaldirtxo bat egitera. Eta neskazarrak bere lagunari!

—Aizan, Xeberi...! Mesede bat egin bear dian. Konfesatu egin nai niken, eta orrelako abadeari esaion etortzeko mesedez...

—Ez al'daukazute ba emen, ortarako, zuen kapellaua?

— Bai...! Bañan nik ez diñat orrekin konfesatu nai...!!!

—Zergaitik ez, ordea?

—Kofiantzan esango diñat iri, bañan ez akion iñori ezer esan! Orren aitak neri egin ziaken erreka. Nere seme bear ziñan, ba, orrek! Ezin konfesatuko naun, ban nere semea bear ziñan batekin...!!!

18/. Ez zigun ark, berak asmatua-bezela ematen, berak ikusia-bezela bai-zik, eta Ingalterra'n ikusia. An gertatzen bait-dira onelako gauza geienak. Ala ere ba'zan, bera, au eta onen antzeko beste gauza asko asmatzeko ere lain! Azkoitiarra zan, India'n zegoan mixiolari, ta gazteasun osoaren jabe zan artean...

Ingalterra'n, eta an-bertako eguras-toki batean "hipie" oietako bat ikusi zuala bein, ille luze-narrasa, bizar zikiña ta jantzi arlotea, idazkai aunci batekin ona-ta-ara. Ta onela ziola idazkai ark:

Gora Gonak eta Beera Prarak...!!!

Emakumeen gona-aldekoa ote zan, ba, "hipie" ura... edo...?

Eta auxe zan gure mixiolari gazteak, guri ere egiten zigun galdera...

19/. Azkoiti'n bat, ezaguna baldin ba'da, Juanita Frabrike gaztea dezute ori... Amaika "indizio" emandako neskea... amaika gaxoeri on-egindako neskea...!

Etorri zitzaion berari ere operatua izateko ordua, ta Donosti'ko Residenciara eraman zuten.

Labatiba bat artu beat zuala-ta, garbi-asko adierazi zion bertako enfermera batek, labatiba ori nola artu...!

Ez zan Juanita'k nai-bezein-laister ontzi ura ustul!

Jeiki zan komunera joateko, ta iturri batetik-bezela irtetzen zan aren atzetik ere ura...!

—Bañan zer den au...? algaraz Juanita'k berak.

Eta alboko beste gaixo batek:

— Ez unan, ba, labatibaren ziria barruan utziko...

Eta ziri ura atera ez zuan artean, iturritik bezela zerion urak Juanita'ren atzerik... !!!

20/. Oraingo eskaleak egiten ez ba'dute ere, leengo eskaleak "Aita gure" bat erreztatzen zuten atean-atean...

— Etxe ontako ildakoen alde...! esango zuan batek.

—Etxe ontakoak osasuna izan dezaten...! esango zuan beste batek, eta abar...

Eta ba'zan, etxe bakoitzean, au esaten zuan eskale bat:

—Etxe ontakoak eta nik, jana ta lana izan dezagun, "Alta gurea zeruetan zaudena"...



San Martin-auzoko etxekoandre bateri ez zitzaion gustatzen eskale onen eskabide au.

- Zera baño alperragoa den bera, ta ari dek, ba, ori lana eskatzen...!

Eta sukalkedo armariora joan, arria baño gogorragoa zegoan ogi-koxkor bat artu, ta or dijoa askelearengana...

- Jana ta lana eskatzen dezu zuk, e ez al'da ala...?

- Bai, etxekoandre, bai! Ala eskatzen det, ba...!

- Tori ortaz ogi-koxkor au! Onetxek emango dizkizu eskatzen dituzun bi gauza oiek: jana ta lana... Naiko lan izango dezu ori jaten,..!

21 /. Anai asko ziran Irineo'ren etxean, eta gosetiak danak. Arkume-oso bana errez jango zuten mutillak...

Ez zan, ba, aiek-danak mantentzea erreza...!

- Ez zegok emen orrela jarraitzetik, eta morroi joan bearko dek ik, Irineo...!

- Nora, ordea...?

- Nik zer zekjat, ba? Errijoa aldera, edo...! Erderaz ikasiko dek bitartean...!

Eta pardeltxo artu, ta an joan zan, irineo, morroi Errijoa'ko erri batera. Erderaz ondo ikasi zuala, ezin ukatu, erderaz egiten bait-ditu, gaur ere, Irineo'k bere aitorketak...! Baña erderaz ikasiaz gaiñera, bertako egin zitzaigun Irineo erabat: bertakoen lur-kolorea artu, bertakoak bezela jantzi ta bertakoak bezela itz-egin...! Ez zuan iñundik azkoitiarra-zanik ematen...!


Urte batzuen buruan, etxerako gogoa egin zitzaion Irineo'ri.


Jo zuan "kox-kox" etxeko atean, irten zitzaion atera ama, ta "no, no, no" esan, eta itxi zjon berriro atea...!!!

Izan ere, kinkillerotzat artu zuan amak bere seme ura...!!!

Eta kinkillero, azkoitiarrentzat, etxerik-etxe uskariak saltzen ibilli oi-zan mo-txaille-antzekoa zan...

Albisu tar Anastasio





# KEREXETARI ERANTZUNA ("DONOSTIA" ITZAREN "A" ATZIZKIARI-BURUZ)

Arras interesgarria iruditu zait Kerexeta'tar Jaime'k gai ortaz egin didan eskutitza-ta, berari baimena eskatu ondorean,aldizkari ontan bai bere eskutitz ori, bai nere erantzuna, argitaratzea, gauza egokia izango dala uste izan dut.

Ona emen, irakurle, legezkoa danez nere erantzunaren aurretik, On Jaime beraren gutuna:

\*\*\*

"Elorrio'tik, 1994-11-20. "Latiegi adiskide: Nire "Linajes y Casas de Gipuzkoa" jasoko zenduala uste dot. Ondo deritzazu NOTAS orri?

"Gai bati buruz argitasun geiago eskatuko neuskizu. Begira: Irakurri egizu liburu orretako 6'garren orrialdea: Donostia, Erretereria, Azkoitia, Azpeitia eta abar. Zure idazlan baten —¿non?— irakurrita daukat azkenengo a ori latiñaren indarrez edo eragiñez datorrela, baiña era jatorrak Donosti, Errenderi, Azkoiti, Azpeiti dirala.

"¿Zuzen ulertu ote neban zuk esaten zenduana? Onela ba'da, azaldu egidazu, mesedez, zure eritzia, ezpañtan itzi nenduzun-eta.

"Badakit gipuzkoar askok —¿geienak?— Donosti'ra, Erretereri'ra, Azkoiti'ra, Azpeiti'ko esaten dabena, eta atzizki baga danean be bai: Donosti, Azkoiti...

"Idoro dodazan bertsoetan a'z agertzen dira, baiña orrek ez daust balio, bertsolariek silabak, batzuetan geiegi luzatzen eta laburtzen dabez-ta, bertsolarroari egoki dakiona jarririk. Edozela idazteko askatasuna artzen dabe. Orre-gaitik, nire eritziz, bertsoetan agertzen diran ainbat era ezin onartu daitezke, "antxiñako" idazleak izanarren be.

"Eta besterik ez, gaurkoz. Agur biotzez.

Jaime

\*\*\*

Ikus, orain nere erantzuna  
Gazteiz, 1994. Otsaillak 23.

Kerexeta'tar Jaime adiskide zintzoari:

Bizkai'n, Elorrio'ko Elizburu kalearen 24'garren zenbakira.

Kaixo Jaime:

Zureari erantzunez, ona emen, eskatzen d; dazun nere iritzi apala:

- Guk, beti, Donosti, Azkoiti, Azpeiti, Errenderi esan izan degu. Eta ondo-rioz, Donosti'ra, Azkoiti'ra, Azpeiti'ra, Errenderi'ra. "A" atzizkia erabiltze ori, adibidez Donostia esatea, itxas-aldekoen oitura da; baiñan oiek ere ez dute itzegiterakoan Donostia'ko esaten, Donosti'ko baizik. Eta donostiar beraiek, Donostiya'ka, kalekumeek, Donosti'ko baserritarrek.

"Errenderi", berriz, guri, erderakeria iruditu oi zaigu, eta euskal- fonetikaren araura "N" baten atzetiko "T" ori "D" biurtzen dalako, Errenderi agoskatu oi degu Pasai'ko errenderiaren izena:

"Lezo eta Errenderi,  
Irugarrena Oyartzun.  
Diostesalbe nere lagunok  
Garboarekin erantzun",

dio, lurralde artan mutillek Agate Deunaren bezperako eskegintzan abestu oi duten aapaldiak.

Berdin Donosti'ko beste abesti anitz ezagun onek:

"Iru damatxo, Donostia'ko  
Errenderi'an dendari".  
Josten ere badakite baiñan  
Ardoa edaten obeki".

"Iru damatxo, Donostia'ko Errenderi'an dendari", (kai bakoitzak bere errenderia -eta izen ortako auzo bat- bai bait zuan), eta ez, orain abesten asi diran bezala", "Donostia'ko iru damatxo, Errenderi'an dendari".

Orra or non agertzen zaigun zorioneko "A" ori: Errenderia, Donostia...

- Agertu, ordea, itz-neurtuzko esaldi batzuen barruan agertu zaizkigu "A" oiek, eta zuk zerorrek ederki diozun bezala: "Orrek ez daust balio, bertsolariak silabak, batzuetan, geiegi laburtzen eta luzatzen dabez-ta, bertso-lerroari ego-ki dakiona jarririk. Edozela idazteko askatasuna artzen dabe."

- Nere ustez, azkeneko "A" ori, gaur-egun erabilli oi dan eraz, fonetika-joku utsa besterik ez degu. Eta iñoiz ere ez da bakarrik erabiltzen. "IA" ori euskal-belarrientzat gogorregia dalako, ez du erriak, legorkj, Do-nos-ti-a" esaten, Donostiya baizik, naiz "Y" ori argiago edo illunago agoskatu. Donostiya, beraz, eta, Azpeitiya, Azkoitiya, edo Donmostixa, Azpeitixa, Azkoitixa, Azkoiti'n bertan adibidez. Bizkai'ren izena ere, idatzi, Bizkaija idatzi izandu da. Ez al da iñon orrela agoskatu?

Ez det sekulan, oraindik Azkoitiha'rik aurkitu, baiñan aurkitu aal izango det eskierki, alperrikako "H" orrek zikindu duan itz euskaldunik ez bait da. Bizkahia, baj, askotan aurkitu izan det. "H" orren zergaitia? Bizkaya adieraztea, ezpairik gabe.

- Guretzat, Azkoiti, Donosti, Bizkai, Frantzi, eta orrelako Uri ta Laterrien ize- nei erasten zaien "A" ori, biotako bat da: euskal-artikuloa, edo lateratik jasota-ko erdelkeria.

- Guk, argi-argi, artikulo bezala erabiltzen degu: Frantzia esaten degunean, "la Francia" esan nai degu. Bizkaia, "la Vizcaia" izango litzake.

Norbaitek esan dezaidaket "Bizkaia" ori "Bizkai" itzaren "nominatibu-era dala, eta era ortan, esaldiak nominatibua eskatzen duan esaldi guztietan erabilli daitekeala. Are geiago, erabilli egin bear dala. Adibidez: "Zer da erri onen izena"? galdetzen duanari, "Azkoitia", erantzun bear zaiola. Ez det uste, ori diotenak zuzen dabiltzanik.

Toki-izen eta giza-izen nagusiek ez dute euskeraz nominatiborik; deklinaketarik ere ez bait dute. Neri, norbaitek, "zure izena zer da"? galdetzen ba'dit, nik ez dezaioket erantzun, "nere abizena Latiegja da, eta nere izena, berriz, Bixentea". Ori egin dala, bai, badakit. Adibidez, Barrutia aramaionatarrek eguberrietarako idatzi zuan antzerkian "Jesus'a" esaten dio Jesus'!

"Espiritu Santuak geriza egiñik,  
Jesusa xaioko da birjinea ganik".

"Laister xaioko da Jesusa neuganik.  
Kontenturjk bioz au kabidu ezin gat".

"Amorioak dakar zeruti Jesusa zuen artera  
Bakatuaren poderiotik guztiok atarazera".

"Biur ezazuz orain geugana  
Jesusa zeure begiak"

"Aldagidana egingo dot nik neure podere guztian  
Kruze baten ysetarren Jesusa lengo mendian".

Azkeneko oiek, Kalbario-menditik datorren Asmodeo deabruak Luzifer deabru Nagusiari esaten dizkion itzak dira.

Guztira, bost aldiz idazten du Barrutia'k "Jesusa", eta bi aldiz bakarrik "Jesus". Zergaitik? Bertsogintzak ori eskatzen ziolako? Baleike. Emen "Jesusa", or "Jesus", eta an ostera "Jesusa" idaztea, oso ederki bait zetorkion bertsoen neurjirako.

Aramaiona ta Arrasate'ko euskaldunek, artikulo ta guzti, esaten ote zuten "Jesus'a". Baietz dirudi, bestela ez bait zan ausartuko Barrutia, antzoki batean arrasatearrej esana izan bear zitzaien antzerki batean "Jesusa" idaztera ausartuko.

Ñere ustez, "A" ori, artikuloa da: gaztelerazko "el" artikuloaren itzulpena: "El Jesus": "Jesus'a".

- Gaur-egungo Euskaltzaindiaren garailleek darabilkiten eran, laterazko erdelkeria da. Baiña, lateraz, adibidez, Italia edo Germania esaten ba'da ere, zergaitik guk, euskeraren sena urratuz, Germania eta Italia esan eta idatzi bear degu? Frantziarrek Germanie, Italie, idazten dute; Germany eta Italy, berriz, ingladarrek; eta Germanien, Italien, doistarrek..

Izkuntz oiek danek, jtz oiek eta itz oien antzekoak, bakoitzak bere senaren araura artu ta erabiltzeko eskubidea baldin ba'dute, zergaitik ez du Euskerak, beste orrenbeste egiteko, aiek ajiñako eskubiderjk izan bear? Izkuntzatik izkuntzara, ez al da bá gure euskera, beste izkuntz aiek bezain izkuntz onuragarri bikaiña?

- Euskeraren izkutuki guztien ezagule berdiñik gabea degu zure ta nere adiskide dan Zatarain dar Anburtzi. Badu bá, gure adiskide onek, Gipuzkoa'ko uriburuaren izena Donostia ez baiña Donosti dala esateko arrazoj bereizi portitza: izen ori, jatorriz, Donostia ba'litz Donosti'ko seme-alaba bati "donostiatarra", esan bearko litzaiokeala, eta ez "donostiarra", baiña "donostiatarra" ez baiña DONOSTIARRA esan zaiola, esaten zaiola, eta esango zaiola beti, euskeraz itzegiteko gai dan euskotar bat Euzkadj'n gelditzen dan artean. Eta ori, baita donostiar beraien artean ere.

Bizkai'ko mugatik urruti, mendian jaio, mendian azi eta mendian bizitutako giputz ala napar zaar batek, "lurralde ori Bizkai" da, esango luke, Arrate-menditik sarkalderuntz begira. Zuek, ordea, gaur-egun beintzat, "lurralde au Bizkaia da" esaten dezute. Alare, ez det sekulan zuetako bati, "ni bizkaiarra" edo "bikaiatarra naz", esaten entzun. "Ni bizkaitarra naz", esan oi dezute beti.

\*\*\*

Argitaratu-berria dezun "Linajes y Casas de Gipuzkoa" izeneko liburu zoli, oparo, ederreko OARPENI-buruz, Jaime, zuri zer esanik ez det. Zuk zerorrek bertan damaiguzu bá urrezko araua, euskal-itzak erderaz nola agoskatu aztartzen dezunean.

Izan ere, euskerak ez du "prosodi-azentu" edo "aize-talkarik"; beti, eta soilki, "melodi" edo "doiñu-azentua" du bere azentua.

Baiñan zuk ederki diozunez, itzen agoskerako doiñu ori ez da gure errialde guztietan berdiña. Ezta, errialde bat berean, itz bat beraren doiñua ere esaldi ezberdiñetan. Eta, areago oraindik, esaldi bat berean ere, ezberdiña da itz berberaren agoskera, esaldian artzen duan lekua- ren araura.

Ortik, euskal-itzak erderaz nola agoskatu bear diran erabakitzeke, korapillo zail askatu-eziña. Altaguztiz, nik, al danean beintzat, erderaz euskal-izenak idaztean, idatzi egingo nuke azentua ere, adibidez "Mendía" itza, egoaldean gaztelarrek "Méndia" eta iparraldean frantziarrek "Mendiá" edo "Mandiá" agoskatu ez dezaten.

Era berean, euskeraz, lengo arau jatorrek agintzen zuten bezala, izen nagusien ondorean atzizkiaren aurretik nik beintzat beti idatziko det kakotxa, irakurleari erreztasun guztiak emateko.

ORION ikusi det asko ez dala iragarki baten buruan. Bertara urbilduta jakin aal izan det, itz ori, izar baten izena ez baiña erri batena zala, eta erri ortan, Orio'n ainzuzen, zerbait gertatu-bearra bazala.

Esku-paper batean SANTUTEGI OROKO det irakurria. Alperrik asi nintzan, santutegi guztien zerbait ura zer izan zitekean jakiteko, paper ura irakurtzen, an ziona, Oro'ko Santutegi arabarrari bakarrik bait zegokion.

Eranegun Araba'ko 011 abarre'ko elizaren atean iragarki batek "UDALA OKAKO" zeraman izenburu. Arriturik urbildu nintzan iragarki aren ondora, baiñan alperrikako arritasuna izan zan nerea, izenburu ark "Oka'ko Udala" besterik ez bait zuan esan nai.

Ar dezagun idazterakoan arautzat onako jardunkera garbi au: Idatzia- ren irakurketa eta ulerpena errezten duan guztia, jarri: eragozten duan guztia, kendu. Nere ustez gaiñera "Udal Okako" eta "Santutegi Oroko", "Don Kijote Mantxako" bezala, gaizki tajututako esaldiak dira. Oka'ko udala, Oro'ko Santutegia, Mantxa'ko Don Kixote", esan eta idatzi bear da. Badakit beste era orren antzeko esaldiak ere erabiltzen dirala erri- euskeran, baiña soilki umeen jolas-abestietan.

Agur, Jaime. Barka egiozu zure adiskide oni, erretolika trakets au. Zure esanera.

\*\*\*

Eskutitz ori Jaime'ri bidali ondorean, onako beste au artu dut arengandik: "Elorrio'tik 1994-III-1.

"Latiegi Adiskide: Gaur eguerdian jaso dot zure azken-eskutitza.

"Oso ederto ta interesgarria zure idazlana! Bialdu, bai, "Euskerazaintza" aldizkarira, askori egoki be egoki izango dakie-ta

"Rentería" "Erreterria" dala, Mitxelena'k esan eban, eta Euskaltzain- diak jarraitu ari.

"Nere eskutitza zuk barriro idaztean, lau uts txiki aurkitu dodaz:

"Ondo deritzazu NOTAS orri?" Eta nik ¿Ondo deritzazu NOTAS orri?" Bigarrena: "¿Zuzen ulertu ote neban..." Eta nik -eta bizkaitarrok-: "¿Zuzen ulertu ete-neban... Irugarrena: "Badakit gipuzkoar askok..." Eta nik: "Ba-dakit gipuzkoar askok..." Laugarrena: "Bertsolariek silabak, batzuetan geiegi..." Eta nik: "bertsolariak, batzuetan, geiegi..."

"Jakin"en adizkera, argien, onela bereizten dala konturatu nintzan aspaldi: "Ba-dakit: ya lo sé, sí lo sé; badakit: si lo sé" Leenengoa, baiezkoa; bigarrena, baldintzazkoa. Argiago, ¿ez?

"Bardin itaun-ezaugarriak be: asieran eta azkenean; asieran jarri ezik, ez dakizu esaldiari zentzunik emoten azkenean itaun-ezaugarria ikusi arte; esaldia zerbait luzea danean, bitartean galduta lez ibilten zara, baiñan ez itaun-ezaugarria asieran jarten ba'dozu. Onetan gazteleraz egokiago egiten dala uste dot. Eta guk, ¿zergaitik ez? Argiago eta obeto.

"Beste bat arte. Agur.

"Jaime".

Ta, eskutitz orri, onela erantzun diot nik:

Gazteiz, 1994'ko Epaillak 4.

Agur zuri, Jaime, nere adiskide zintzo orri.

Oraintxe bertan iritxi zait zure bigarren eskutitza, neri, zure

lenengoa "Euskerazaintza"rentzat birr-idaztean egin nituan lau okerkeri-  
txoen berri emanez.

Benetan diozut, Jaime, oartzeke egindako okerkeriak izan zirala. Giputza izanik ni, ez bait nintzake beñere bizkaitar bati bere euskera zuzentzen astera ausartuko. Askoz gutxiago, nori?... eta On Jaime Kerexeta'ri!

Bi gauzatxo esan nai nizkizuke, zenbateraiño natorren zurekin bat, jakin dezazun.

Aurreneko gauza: Galde-ikurra galdera ororen asieran ere ipintze ori, nik eskatu nuan Euskerazaintzaren lenen-lenenetako billera batean. Bi arrazoi ipiñi nituan:

- Españiarrek eta portugaldarrek ipintzen dutela.

- Ipintzen ez dituzten izkuntzek, ikur orren bearrik ez dutelako, ez dutela ipintzen. Esaldi batean aditza aurretik jartzea naikoa bait dute esaldi ori galde bat dala adierazteko: "Have you...", inglanderaz; "avez vous..." frantzeraz.

Nere alde atera zan Anbroxio Zatarain. Aurka besteak. Jexux Gaztañaga bereiziki.

Bigarren gauzatxoa: "BA" aurrizkiari-buruz ere, aurrizki ori, baldintza-adierazle danean, Euskerazaintza Akademiak, atzetik kaxotx bat erastea eta orrela darraikion aditzetik bereiztea, erabaki zuanean ("ba'da"), era berean, "BA" baiezkoaren adierazle danean ere, darraikion aditzetik lerrotxo baten bidez bereiztea eskatu nuan nik ("ba-da"), batez ere orrela euskal-ikasle ta euskaldun berriei idazkien ulerkera errezteko asmoz.

"Estrategi" edo azken-elburu lez Euskeraren salbamena bizkortzea artuz,

au izan bait da beti nere "taktika" edo jardunkera: Izkuntza idatziaren irakurketa, eta ondorioz, irakurri danaren ulerketa errezten duan guztia, JARILLEA! Eta ori eragozten duan guztia, ta, ondorioz, izkuntzarentzat alperrikakoa dan guztia... KENTZEA. Alperrikakoa izan daitekean orok, "H"ak adibidez, eragozpen txit kaltegarriak sortzen bait dizkio il-zorian daukagun Izkuntzari.

Euskerazaintzaren billera artan Anes Arrinda izan zala uste det, nik eskatzen nuan lerrotxo ura bearrezkoa ez zala esan ziguna, ate aren esana izan zan ontzat artua.

Ori guztia, teorizko arazoei-buruz. Orain eskuartean degun beste arazo oni dagokionez, zure bigarren gutun au arras garai erosoan iritxi bait zait, zure aurreneko beste ura oraindik irarkolara bidali gabea dedan ezkerok. Orain, zure bigarren au argitaratzearekin zuzendurik gelditzen dira, uste gabeko nere lau akats aiek.


Badakizu, Jaime, bearkizun orotan nori agindu.


Latiegi'tar Bixente

P.D. "Errenderi"ri; "Errenteri" esan bear zaiolako ori Mitxelena'ren gogoeta dala, baneklan; eta, zuk diozun bezala Euskaltzaindiak "ari jarraitu" ziola jakiteak ez nago batere arritzen; Euskaltzaindia'ren billeretara sarri-arri joan izan dan Zatarain'ek dionez, ori gertatu bait da beti Euskaltzaindi orren altzoan. Ez da an iñor Mitxelena'ri ezezkorik esateko gauza izan, Zatarain bera izan ez;k.

Jaime: Ezer geiagorik gabe, nere agurrik beroena zuretzat.

L.'tar B.





# EUSKALTZAINDIA EZTAIETAN

## H'ak salbatu du Euskera

Orixe esan digu euskalzain oso batek. H'al salbatu ba' du Euskera, toki ederrean gaude! Salbatu, ez dakit; baña, eragozpen galantak ipiñi, bai. Salbatu? Nundik eta zeñengandik salbatu? Bera bai salbatu dala H'ren Euskera Batuari esker!

Bayonako Zina Eta Mezua deritzan agerpenak, izen zerrenda bat du berekin. Zerrenda orretako sail batek bai, oiek beuren buruak salbatu dituzte Euskera Hatxedun Batuari esker. Euskeraren aginpidea euren eskuetan dago. Eta gaur, Euskera, bei emankorra da.

Aspaldi onetan or ari dira Euskalzaindñaren ganako begirune eta errespeto eskatzen: eurok egun batean ukatu ziotena. 1971 'garrenean ain zuzen, iraultza egin zutenean Euskaltzaindiaren bizkarretik.

"Euskal Idazleen Elkarteko lagun geranok, 1970-garreneko Martxoaren 29-an, BATASUNA REN KUTXA liburuan agertzen diren euskerazko idazmoldeak aztertu ondoren, erabakiok artu ditugu:

1/. Libuaren argitaraziotik 1971-garreneko azken egun arte, hemen agertzen diren moldeez eta erregelez baliatuko gara".

BATASUNAREN KUTXA: "Gabriel Areztik eta Xabier Kintanak moldatutako liburua" dio orrialdean eta azalean berriz, auxe: "Mitxelenaren promesaren pean". Ondoren datoz (9 orr.) Kutxaren Giltzarien Oharrak, Patxi Altunak, J.L. Alvarez Enparantzak eta Gabriek Areztik siñatua.

Ondoren dator (13-15) or aurrean idatzitako BAIONAKO ZINA ETA MEZUA.

\*\*\*

Euskaltzaindiari bizkarra emanda zebiltzen, Lujs Mitxelena eurengana erakarri ondoren. Luis Mitxelena jaunak "argumento biológico" aitatu zuen bere erabakia garbitzeko: Zarrok ilko zerazte eta gazteok biziko eta irabaziko.

\*\*\*

Arantzazuko billeran, 1968, Batu au sortu zan egunean, itz gogor askoren artean, au entzun omen zan: Ilko zerazte! Bai, danok ilko gera; baña, eriotzak edonola egiten ditu bere aukerak...

\*\* \*

Baionako Zinu eta Mezu'aren irugarren atalak onela dio:



3/.Bitarte horretan hartutako zuzenketa guztiak eta liburua bera, Mitxelena jaunari emanen zaizkio orduan giltzarien eskuetatik, eta berak erabaki beharko duena behin eta betiko beteko dugu".

\*\*\*

Baña, Mitxelena ez zan Euskatzaindia; aietako bat besterik ez zan. Batek erabakia beste guztiak "behin eta betiko" beteko dute. Etorkizuneko gazteek ez dute ezer aldatzerik. Eurok iraultza egin zuten, aitaren etxeko gurdia ankaz-gora bota zuten, Paris'tik berri bat ekartzeko. Ango Maiatzeko (1968) ikasle gazteen iraultza, oiartzuna izan zuen Arantzazun (1968). Baña, "behin betirako"; ez da geiago iraultzari eskurik emango. Zapuztu dira ondorengo iraultza guztiak. Eta, Hatxea da iraultza orren "Símbolo Plástico". Guk ez degu izen ori asmatu.

\* \* \*

Dudarik badezu irakurri seigarren Zinaren atala:

6/.Hemen hartutako erabakiak beteko ditugula zin egiten dugu geure ohoreagatik.

Baionan, 1970-garreneko Bazko-igandean.

Eibarren, 1970-garreneko lehen maiatzean".

\*\*\*

Au da Euskaltzaindia berriaren sustraietako arra. Iraultza egin dute Euskaltzaindiaren aurka eta Euskaltzaindia berriaren jabe egin dira. Iraultza egin dute, aurrera egin bearrean, atzera eta 50 urtez betetako lanak baztertu eta bide berria atzeruntz artu. Bitarte orretan, euren bide berri ori artuko ez dutenak madarikatu:

"LUR/KRISELU/HATSAPENAK euskeraren batasunaren serbitsuan jartzen dira. Beren hautapen-kontseiluak, Gabriel Aresti, Xabier Kintana, Ramon Saizarbitoria eta Ibon Sarasolarekin osaturik dagoenak euskal gaiztoko dialekto mordoiloetan idatzitako lanak ukatuko dituela jakin-araziten du, eta bide batez euskeraren batasunik nahi ez duten euskaldunak euskeraren eta Euskalerrriaren etsaiak direla deklaritzen du". (Euskal Elerti, 69. LUR editoriala. Donostia. 1969. 547 orrialdean).

\* \* \*

Liburu onetan bertan dator Baionako Zina eta Mezua izenpetu zutenen zerrenda: "Gabriel Aresti, Xabier Kintana, Imanol Berriatua, J.L. Alvarez Enparantza, Juan Antonio Letamendia, Daniel Landart, Patxi Altuna, Ramon Kanblong, J.M. Torrealдай, Ibon Sarasola, Jose Luis Lizundia, Salbador Garmendia, Juan San Martin, M. Karmen Garmendia, Xabier Gereño, Ramon Saizarbitoria, Anjel Zelaieta, Xabier Lete, Jose Antonio Artza, Amaia Lasa, Patri Urkizu, Anjel Lertxundi, Jon Zorrozu, Abel Muniategi, Mikel Ugalde, Kepa Enbeita, Xabier Mendiguren, Lurdes Gandiaga, Markox Amundarain, J.M. Beristain, Jose Mari Olanga, Iñaki Beobide, M. Karmen Aranburu, Andoni Sagarna, Jon Tolosa, Jose Mari Aranburu, Andoni Sarriegi, Jaxinto E. Setien, Jose M. Iturrioz, Begoña Arregi, Jabier Zubiaurre, Imanol Laspiur, Enrike Heras, Josune Txintxurreta, Xabier Zubizarreta, Jesus M. Amundarain, Bernabe Berezibar, Eduardo Larreategi, Iñaki Beristain, Jon Arginarena, Karmele Errotaetxe, Jose Luis Egireun, Juan A. Aroma, Patxi Zabaleta, Juan Zulaika, Begoña Etxebarria, Julian Iriondo, Serafin Basauri, Felix Etxebarria, Anton Santamaria, Iñaki Zumalabe, Norbert Tauer eta Luis Mitxelena". (14-15 orr.).

\*\*\*

Auek ziran bide berrietako gazteak; baña Gaztetasunaren gaitza berez sendatzen da. Orain zartzarorako bidean daude. Euskera bei emankorra gertatu danean, kontuz ez dedin errapera iñor gerturatu Hatxea eta Batasun atzerakoi ori artzen ez dutenak. Iraultza egiña dago "behin betirako". Gaurko gazteok arazo orretan ez dezute ezer egiterik; dana dago betirako ondo lotua ("atado y bien atado", beste arek esan zuena berbera).

Erakunde politiko batzuek, arrezkero, bide orreri ekin diote beuren indar guztiekin bestea; sartu eraziz; baña, benetako lana egin duena, 1975'garren ondorengo Eusko Jaurlaritza izan da. Onek eman zizkion Euskaltzaindiari eskubide osoak eta bere mende jarri beure eta beste guztion buruak. Arrezkero Euskaltzaindiak adierazten duena bete bearko da, gojtik asi eta beeraño. Nai ba'dezu eta nai ez ba'dezu.

\*\*\*

Asmo guztiak, ordea, ez zeuden orretarako. Don Manuel Lekuona, Euskaltzaindiaren lendakaritzatik une orretan bota zuten. 1924'garren urtean, Gazteiz'ko Seminarioan, Kardaberaz Akademia sortzaillean buru zan. Eta, 1970'ean, Kardaberaz'en 200 urtemuga aitzak; zala, Akademia ura berritu genduen eta berriro Don Manuel'eri lendakaritza eskeiñi, ordurarte Euskaltzaindiak agindutakoak betetzeko asmoz. Bereala inguratu ziran berreun lagun, geienak idazleak: Lino Akesolo, Santi Onaindia, Augustin Zubikarai, Ambrosi Zatarain, Urrestarazu "Umandi", Aita Laffite, Gabriel Manterola, Damaso Intza. Nemesio Etxaniz, Antonio Labayen, Jaime Kerexeta, Zaitegi Jokin, Yon Oñatibia, Bedita Larrakoetxea (Shakespeare'ren 37 lanak bizkaiera euskeratuak), Onaindia Alberto, eta abar eta abar...

\*\*\*

Geroago, Euskaltzaindi berria, bideak utzita, ertzeraño zebillela ikusirik, Kardaberaz'tik Euskerazaintza Erri-Akademia sortu genduan, Madrid'eko Jaurlaritzatik eskubideak lortu ondoren Gazteiz'kotik ere bai, lortu genduzen, Euskaltzaindia Real Academieren maillan. Zaarrak ornen gera eta esiz inguratu eta iltzen utzi, beste erremediorik ez ornen degu. Baña, ideiak ez dira lotuta iltzen. Arrazoa geuk degu; gauzak oker egin ziran eta indarkeriz mundu guztiari ezarri. Gaur egun Euskeratik bizi dira zenbaitzuk eta ortik jan nai ba'dezu, Euskaltzaindiak esandakoa bete bearko dezu. Baña, gu ez gera Euskeratik bizi, ez orain eta ez leenago. Orduan Euskerari serbitzea, poltxa zimurtzea zan bizirik eusteko. Lan pozgarria. Bizirik eutsi diogu beartsu zanean; ez dezaigutela orain aberats biurtu danean.

Arrinda'tar Anes'ek





# ALTZIBAR-ARETXU- LUAGA'TAR ROKEGAZ EGINDAKO JARDUNALDIA

SEME... JATA-mendi barreneko berbeteari buruz, Roke Alcibar-aretxulua-ga, bertoko seme zaran orregaz, berbeta aldi bat egitea, ondo, etorriko da gure izkuntzaren aldez...

Orain irurogetaz urteak... zelan egiten ziren zure inguruko baserrietan gari ereiteak: ...?

Garik ereittea... Garaiairen preparaziñoa. era onetan, egiten zan. Ure berotu... tiñeku batera bota eta an, gari azie beratuten imiñi ta gero, a ure utzittu ta a garie, tiñekure botau karea ta nasteu.

Oin... soloa mañjketu bear da, esaterako, lau beiegaz... idi ba-ziren busterrri bategaz... Beiek ba-ziren, lagun bat aurrean ta beste, atzean, agintten.

Esaterako... lagun bi ioten ziren, lau ganadu ez zirelako arregletan bueltakeran... Ori bueltakera ori egiten zan baztarrera allegetan zanean... Eta idiek ba-ziren, lagun bakarragaz egiten zan... (diek irakatsitte egoten ziren.

Soi ganean ugerriñek eitten ziren lastoagaz iru metro zabaleran por ejemplo... Orduen ioten zan ereitzaillea ugerriñen erditik, aurrera, garie ereitten.

Gero, koiu area ta busterrri bategaz aretu ta lurregaz garie nasteu.

Oin, nasteu dogu gane ta Gabonetako erneta dago garie... Gero, urterreillean eta zezeillean edurrek garie denegau eta lurre gogortute imintten zeun...

Gero, udabarrien, artu estoa edo area eta gari soloa pasten zan... Ze asmo gaitik...? Soloa mokiltsu egoten ba-zan, estoa pasaten zan lana eitteko... eta soloa lisu egoten ba-zan, area lana eitteko.

Ori gari soloa proba eitten daun artean, baserritarrak arto bearrak eitten manejatzen ziren.

Garagarrillean gariek bellegittu eta eldu eitten ziren... eta arto-txoriekaz enpestade bat ixetan zan... eta imintten genduzen txori-arbolak, txoriek ixetuteko.

ZER LAN DATOR ORAIN...?

Gariek eldute dagoz ta ebagi egin bear dire... Koiu serrak eta pike-malluek eta ebaten asi bear da. Aitte ta ama bere familiezen asten dire ebaten... ein erre-mesa bat eta gero, solo munen iezarri eta aittek serrak pikau ta famili guztiek

makallo errea meriendetan gendun... Segan ibiltten giñenean, eskutekada bigez eitten gendun txolea. En jeneralean... amak amarrau txolea eta bestek, aurrera, segan.

#### GABON JAIK, ZE GIROTAN EGITEN ZIREN ZURE UME AROAN...?

Gabon iaiek eitten genduzen ilusiño andiegaz. Gure gurasoak esaten zozkuen Ume Jesus jaio dala, gure zerureko Salbagillea... orregaittik preparaten zeuren afari on bat.

Afari aurrean, errosario santue erresaten gendun famili guztik. Gero, maje preparaten zan, orio azak, intxur saltzea ta amimerea...

Amimerea ixen zan... sagarrak egosi eta ari botau arda ta azukrea, ta gero, ostean eitten gendun karta iokoan.

Beti, arda ez-kendun okitten... Ze, Gabon egun baten ion nitzen Mungira ulea ebai ta ardaa ekartera. Eta pasaten asto otzaran oki nendun bost kuartiloko botillea ardaoz beterik... ta kortxoak urten eta ardaa utsitu zaten... ta botilla utsegaz etorri nitzen etzera, eneulako oki dirurik barrie erosteko, ta Gabon gaubeko atarle arda barik ixen zan.

#### ARDAO BARIK ETORKERAN, ETXEAN ZELAN ARTU ZINDUEZAN...?

Asarrekuntza andirik ez zan izan guraso eta nire artean. Baia, gero, amak eseutsen alondigeko gizonari, zelan iausi latan ardaa... Eta gizonak eseutsen... barri, etor ber zeun arek ta emongo neutsen ardaa...

#### GABON ZAR GABA, ZELAN OSPATZEN ZAN...?

Gabon Zar eitten gendun afari ona fameligez, eta gero, parrandan urtetan gendun neskatillek egoten ziren etzeetara. An gero, batxen giñen soiñulari, panderodunekin eta juerga bat edo preparaten gendun eta koñake ta alegrentzie ez zan faltaten.

Gero, andik bueltan, topaten genduzen gurdiek eta areak iruli ta iaurtitten ibiltzen giñen.

#### URTE BARRI EGUNE, ZE MODUZKUE ZAN SEME-ALABA TXIKIEN ARTEAN...?

Ba... auzotegiko umeak danak, kuadrillan, urtetan gendun kantetan sari baten eske... ta sane ixetan zan intxurrek, mazpazak, ta gastaiñek...

Kantea ixetan zan...

Urte Barri, txarri belarri,  
dekonak eztekonari,  
nik eztekot eta niri,  
intxurtxu bet, gastaiñetxu bet,  
otzara bete saizki,  
otzara bete solomo,

si si si... otzara bete saizki,  
al no no... otzara bete solomo...

Ta ori eginda, bueltara parau eta errepartoa eitten gendun.

### ZURE UME AROAN, ESKOLARA BIDEA ZELAN IZAN ZAN...?

Sei urtegaz así nitzen eskolara... ta eskolara asteko amak erosi eusteazan abarka barriek, jerse barrie ta taparokea... Ta lenengo eskola egune ixen zan Mugire etzean. Andik frontoi etzera denporagarrenean ioten ginen... eta gero, erri eskolak ein ziren...

### LEN, EZ AL EGOAN ERRI ESKOLARIK...?

Ez... ez zan egon erri-eskolarik... Noz egin zan ba erri-eskola?

Milla bederatzireun da ogetamaika inguruen... An, eskolan, ein naitxuzen urte bi inguru... An, Kruzifijoak egon ziren, eta errepublika denporan kendu ein zeitxuzen, eta gero, guri jakeko solapan edo bularrean kurutzetxu bana imiñi euskuzen.

Eskola onetatik urte bigarreanean, Ventades kolejiara ion nitzen. Ventades'en egon ziren lau fraille ta lau monja. Ta ondo, irakatsi euskuen. Gero, gerra denporan hospital militarra ein zeuren.

Oin noie umien bazkari konture. Eskolara joten giñenean, bazkarittek aitte-amak emoten zozkuen txakur-andi bi, ogie ta txokolatea erosteko eta orregaz dirugez erosten genduzen karameloak. Eta gero, preparau zozkuen taberna baten plater bete iniaba ta ogi zati bet... eta kostaten ogetabost zentimu.

Olan akaba zan nire eskolako estudioak.

### AURRERANTZEAN, ZER EGITEN ZENDUEN?

Aurrerantzean eitten genduzen labrantzako bearrak... artoak eta iniabak kosetzau... goixean asten giñen ganadu bearrean, gero, armosu jan ta urtetan gendun solora edo basora... soloan ba-da eitten genduzen artoak eta iniabak erein, bedarrak ebai, siketu, ta lastetegietan gorde.

### ZERTARAKO ZIREN LAN ONEK...?

Ba... etorten zan negu gogorra ta orduen, geuretzako lanaria okitten gendun arkan... artoa eta iniabea ta lastegietan bedar sikue... Eta... joten giñen basora otea eta irea ebaitten. Eta, bazkari iateko basoan, eroten genduzen urdai zati bet eta lau talo... oin baso trokara, ure dagon lekure... ta egurrek batu ta ein sue eta txitxi-burruntzien urdaie sartu ta erreten gendun. Ta taloan untau, ta ondo, gozo iaten gendun...

### ARTO EREITTEAK, ZER BEAR MODU EMOTEN EUTSEN BASERRITARREI?

Arto ereitteak eitten ziren udabarrien... Esaketa bat egoten zan... Artoa koiu

gure daunak, eren ber dala maietzan baterik amabostera, eta iniabea koiu gure dauenak erein ber dala maietzaren amabostetik maietzan akabure. Alan da ze, biek koiuteko, onena da, erein San Isidro bueltan.

Solo, preparentan zan, lenengo eitten gendun, satsak zabaldu eta makiñetu ta arek satsak zabaldu eitten dire, eta gero, aregaz ta estogaz eitten gendun lana. Oin, soloa preparata dauku... Aittek exegaz eitten zeun karkabatxu bet ta amak, atzean, ereitten zeun, an, karkabatxuen artoa... eskiñera allegau dire eta amak iniabea artu ta aurretik doa ereitten ta gero, aitte, atzetik, doa bei busterrigez eta exeagaz aman atzetik aziek tapaten.

#### ZENBAT DENPORA BEAR EBEN ARTOAK ERNETEN...?

Artoa ta iniabea erneten ziren zortzi ta amar egun inguruen. Udabari beroa ba-zan, artoa ta iniabea kolore berdea ataraten zeuren... eta udabarri txarra ba-zan, kolore bellegie edo tristea ataraten zeuren. Landarak triste ba-daoz, norbera bere triste egoten zan... Orrek bellegitasunek esan gure dau, urte tris-tea edo kosetxa eskasa ixengo dala.

Kosetxa eskasa ba-da, ganaduek, oilloak ta personak urte gosezkoa ixetan gandula.

#### ORI ZERBAIT KONPONTZEKO, ZER EGITEN ZAN ARTOEN ALDEZ...?

Arto iorrak eitten ziren... lenengo, lana ein bostorrotzagaz... lana, ondo, ein, ta gero atzean, atxurragaz bedarrak kendu ta zeaztau eta artoari bere bueltan lurre betatu, sustraje ondo, aguanta dedin. Lan ona ein ta denporea berotuten ba-zeun, artoa eta iniabak kolorea ta jnyerra artzen zeuren... Orduen jxetan zan urte esperantzadu bet.

#### TXALAK AZTEA ALA ESNE SALTZEA ZEIN ZAN BASERRIKO JOKABI-DEA?

Guretzako esne saltxea ixen zan komenimettu obea. Ze... txala jajo eta amargarren egunean saldu eitten genduzen eta gero, beien esnea saldu... Zer dan motiboa...? Txala aztegaz urte betean egon ber zan aren diru begire eta esne saldugez, illen akabuen artzen gendun dirue.

Txala azten ba-zan, urte betean egoten zan pentsu jaten... ta txala, txike-rretan, saldu ezkeru, be; bat geiau eukitten gendun gortan esnea emoten.

#### ESNE GORA-BERAN, LANAK ZEINTZUK ZIREN?

Goixean goixetik altzau oittik, eskuz beiek eratzi eta ugerrjk eitten eztaken baldetara eratziten gendun esnea. Gero, koiu lepo-makillen balde bat aurretik eta beste bat atzean ta baserritik kamiñora, zazpireun metrotara, ataraten gendun.

Letxeruek etorten ziren konpra-bentakoak eta aiek eroten zeuren Mungiko

trenera, ta an, joten ziren Bilbora... ta guri etorten zakun illen akabuen esneen pague.

#### NEGUKO GOXETAN ARAZO AU... ZE MODUZKOA ZAN...?

Goixe gogorrek ixetan ziren... Leiek... edurre... eurie... trugoiek... iñeztuek ta aixe otzak... asko pasaten gendun, eta estalgie, saku bet burutik eta espaldatik ixetan zan. Eta gero... pagea ixetan... batzuk amabost egunerik egunera pagaten zeuren ta beste batzuk illerik illera; baiagutziri esaten geuntzen kintzenea.

Eta ni, mutil gazte ixen nitzenean, eta kintzenea etorrikeran, nire amak eskuarterako diru apurtxu bat emoten eusten... ta txakur-andi bategaz amar karamelo erosten ziren.

#### LETXERU NAGUSIOK ZEGAZ EROATEN EBEZAN ESNEAK TRENERA...?

Asto eta zaldi karrotan berrogei litroko terreñetan eroten zeittuen esneak trenan Mungiko estaziñora. An, eitten zan esnean trasladoo. Bilbotik etorten ziren terren utsetara. Gero, orrek letxeruek batxen ziren tabernara ta an, kopea, anise ta koñake, naie, edaten zeuren... Egun baten, posture bat egin zan... litro bat anis, baietz edan eta ezetz edan... eta litro bat akaba baiño lenao, iausi, ta il zan.

#### EUZKO BASERRI EDERRETAKO GARI JOTEAK ZELAN EGITEN ZIREN...?

Gari ioteak eitten genduzen egun ari eguzkitsu baten... Lenengo, gariek etze bueltan zabaldu, eguzkiek berotu deizen. Lenengo illedea imintten zan orma, erdi zutunik, eta beste illedak imintten ziren errimuen plegata... buruek agirien, eguzkien berotasune artu dein.

#### NOR I ZUK ZIREN LAN ORRETAN ALEGINTZEN ZIRENAK...?

Aitte-semeak eta auzo gizon lagunek... Ze... orduen... eitten zan... alkarrerri lagundu auzotegik... Gaur nireak, ta bier, beste batenak inten genduzen, bata besteari lagundute.

Oin, gariek berotute daoiz... ta arriek prepara ber duz... Portalean imiñi zure lodi - luze bat ta ren errimuen imintten genduzen bost arri-losa zabal eta lodiek.

Orretarako, imintten genduzen erropa zartxuenak... sakuzko amentalak gerrikoaz amarraute eta zamatik pañoluek... eta amak ataraten zozkun botille patxarra... edaten genduzen iru-lau kopa ta bengal... gari inten... eta bien bitartean... aufa, aufa... dedarrak eitten genduzen... ta gero, zelan gorputze berotu... iner geiaz gariek arrien kontra inten ziren...

Gariak... erdiek inguru inten zirenean, edari kanbiatek gendun... sangrie... ta amak preparaten zozkun edarie ardauagaz eta uregaz eta azukregaz... eta aurrera gari iotea.... Yoko txolak, atzeko alderdire botaten genduzen, eta andrak eta jende gaztea... sokakaz kargak imiñi ta lastegira altzaten zaituen.

#### GARI GARBITZEA ZELAN EGITEN ZAN...?

Auzotegien batek okitten zeuen makiñea... eta a gizona etorten zen makiñegaz batera... Ta garie garbituten zanean... ari gizonari, zelemiñegaz medidu ta emoten zakon bere sarie.

Onen gizonan bearra ixetan zan, parau makiñean errimuen eta zabaldu garraburue eta garie...

Or, makiñen doaz beste gizon bi... bat goiko kajara garie botaten eta bes-tea bolanteari eraitten...

#### BASERRI EDERRETAKO ARTO BATZEAK ZELAN EGITEN ZIREN...?

Koiu bei busterrrie eta gurdie... imiñi solo munen... eta ioten giñen solora fameli guztie... eta eitten gendun... batzuk arta burukaz zaranak betatu... bes-teak gurdire eroten zeuren.

Allegaten zan gaube, ta artopilloan bueltan paraten giñen fameli guztie... eta lantzen bein, etorten zakun eskeko pobre bat... eta a bere, kuadrillen sartzen zakun... eta arto zurituteaz batera, erresaten gendun errosario santue...

Orreri eskekori preparaten geuntzen lo lekue... Urrengo goxean esne beroa ta talo sopak emon... ta gixajoa, eskerrak emoten, ioten zan...

#### LABA SURIK EGITEN AL ZAN ZURE UME AROAN...?

Bai... laba-suek eitten genduzen... ota leorra ta egurregaz sue ein ta labea beroten gendun... eta prasea eitten zanean, zesto bete piper gorri, lodi, erre-tan ziren... Gero, labea garbittu birikiegaz ta basneragaz, ta lenengo laba-arto-ak erre ta gero, artaburuek sartzen genduzen labara... amak preparata okitten zozkun kazula bete piper-saltza... laban erreko piperrakaz ta makallo bustene-gaz gustu emoteko...

Ta laba-artogaz eta esnegaz sopa ein eta barriro solora.

#### ALDI ARETAN, OGIRIK ERRETEN ZAN LABAN JATA-MENDI BARRENEAN...?

Nire ume aroan ixetan zan artoa laban eta ogie bere, lantzin baiñean, baia labea ogientzako beroegi egoten zan... eta lenengo, laba-erdi artaburu sartzen zan, eta a beroa aplakaten zanean, orduen, sartzen zan ogie.

Emengo baserritarran egun guztietako iatekoa ixetan zan, taloa ta esnea goxean ta iniaba lapikokoa urdei zatiegaz eguerdietan eta patata porrusaldea makallo bustenegaz gauetan...

#### MEZA ONETAN AUZOKIDEAK PARTEIK ARTZEN AL EBEN...?

Bai... parte andie artzen zeuren... Meza Santue kanta askogaz erantzuten zan... eta deboziño andiez errezaten zan.

Meza ostean konbitte eitten gendun.

Barrioko soloak aprotxaten zeittuen fameli batek, eta ak fameliek euken obligaziñoa, egun guztietan, eguzki illunkeran, amarittekua... tako kanpaie ioteko... Eta barriotan baterenbat iltten zanean, il kanpaie ioten zeuren...



## IL-KANPAI ORI ZERTARAKO IOTEN ZAN...?

Il-kanpai inten zan barrioko jentea iakittun egon daitten... Barrio guztiek axistitzen zeuren entieru eta funeralera siñismen eta deboziño andigez... Ilkerarik urrengo egunean asi ta difuntuen etzean bederatzurrune... errosario santue errezaten gendun, illaren aldez...

## ZELAKO AZOKAK EZAGUTU IZAN DITUZU GURE BASERRITARREN ARTEAN...?

Plazakoak ederrak... Baserrien koiuten genduzen piperra, tomatea, baiñea uden... porrua azea, sagarrak, ikoak udagoienean... Gero plazan, baserriko andrak euren saldukera eitten ioten ziren... Gizonak ioten ziren bei busterrre gurdigez edo asto karroaz... piper lodiek... zarankadak, piper prljittakoa, saku-kedak...

Aza-errepollu batzuk... porru dozena batzuk... iniaba motxille bat... koneju batzuk... ollozkoak eta arrautzak... Ta gure amak, aien saldukera, gogo andiz, eitten zeuren.

## TA ORTUARIEK TIRE AUNDIE EUKITTEN AL EBAN...?

Gu, Mungiko plazara íoten giñen eta erri buelta guztiek, ara batxen giñen... Esaterako, Katike, Laukiz, Jatabe, Fruiz, Arritta, Gamiz, FIKE, BAKIO, LARAU-RI, BEÑEKA, LAUKRIZ,..

Orretati erri guztietatik bendeja asko batzen zan eta baserritarrak,, orrek bendejak danak saltzen zeittuen eta Mungiko tren zarrak artu ta Bilbora eroten zeittun.

Tren-zarra diñue, baia Mungiko tren zanak amaka diru eder Mungiko komarkara eron ta ekarri ein zeun... Basoko piñuek, ganaduek, esneak, bendejak, egazti, koneju, patata, sagar, lurreko jenero guztia, goxeko bostak eta ogeien urtetan zeun Mungien, langilleek Bilbora eroteko, ta beste tren batek goixeko seirek eta ogeien urtetan zeun langilleak Lutxanara eroteko.

## JAI EK, ZELAN IZETEN ZIREN GURE BASERRI AUZOETAN...?

Auzotegiko jaiak allegateko begire, ilusiño aundien, egoten giñen. Besperan illten gendun arkume eder bat... Egitten gendun laba-sue... ogiek erre... arku-me a tostau... ogiek erre ta ostean, prasaren ganen imintten genduzen kazulak arkumez baterik... orretara kentzen zakon koipe partidea...

Arkume odolagaz eitten ziren buskentzak, eta tripe barrukaz kazula bete saltza ederra...

Jai egune eldu da, ta egurdate erdian egoten zan Meza Santue...

## Oarrak

(Lenengo zenbakia orrialdearena da eta bigarrena, lerroarena)

1-2: *Bota*: Ona emen sarritan erabilia dan itz bat. Erderazko "botar" dala dirudi, baiña adierazpenak ez dauko ezelako antzik. Gaiñera emengo adierazpena bera dauala erabilten dabe galiziarrek euren lurraldean.

1-3: *A garie*: Mugatzaille bi ezartea, Bizkairik geienean sarritan egiten dan gauzea da, naizta gramatika-arauz onartzea izan ez, eta erabilleran be errezta-sunik emon ez. *Gari a*.

1-11: *Zoi*: Berba polita ta egokia. Lurrean ebagiten dan zatia adierazteko. Emen urrean daukagu auzo bat *Soietxe* deritxona. Z'rekin idatzi bear litzake. Erderazko "ladrillo" zergaitik ez "Zoierra"?

1-11: *Ugerriñak*: Soloko lur-gaiñean, ura bertan geratu ez daiten egiten diran urbide txikiak dira,

1-12: *Por ejemplo*: Ona emen erderatik eta sarritan erabilteko sartzen dato- rren esaldi bat: Idazleen *adibidez* irakurten dogu eta gure errian zabal dabil euskarazko esaldi au: *esate baterako*, oso egokia.

1-14: *Koiu*: Bizkairik erdi-inguruan erabilten da itz au, zalantza barik erde- razko coger'etik artua. Beste leku batzutan *atrapau* eta *arrapau* esaten dira, oneik be erderatik etorriak.

1-17: *Urterrilean, zezeillean*: lleen izenak Mungialdean onelan esaten dira eta zarrak ba-dakiez: Urterrilla, zezeilla, martia, aprilla, maietza, bagilla, gara- garrilla, agustua, irailla, urria, zemendia ta abendua.

1-17: *Denegau*: Ez da ulertzen zer esan nai dauan emen.

1-19: *Estoa*: Solorako lanabesa da, lurra leuntzeko narraren lana bera egi- ten dau, baiña au abar biurtuakaz esi antzera egiña da.

1-23: *Manejaten ziren*: Aditz au erderazko "manejar" da, baiña beste adie- razpen bategaz: konpontzen zirala, arazoa bideratzen ebala esan nai dau.

2-3: *Ixetuteko* diño baiña *uxatuteko* esan nai dau. *Uxatu*, urrindu da. Erdera zarrean ba-dago antzekoa dan itz bat: *Oxear*, gero *ojea*r biurtu dana, eizarako piztiak euren abietatik ateratea zan. Berbearen jatorria izena sortzeko zaratea artzea edo onomatopeia da: *ox*. Txakurrari be *oxa* edo *otxa* esaten jako bere lekutik urten daiten, edo eraso dagian.

2-3: *Txori-abolak*: Esan nai dauana txori-jabolak da, soloetan ipinten diran andrakil antzeko batzuk dira, txoriak soloetara etorri ez daitezcan, txoriak jago- teko.

2-4: *Zerrak*: Itz au, adierazpen onegaz, mungialdean baiño ez dot entzun. Eskuz bedarra ebagiteko edo garia ebagiteko erabilten dan tresna txikia da, eta beste leku batzutan *igitaia* diñotsoe, *segea* be entzun dogu. *Zerrea* eder- derazko *sierra'tik* artua dala dirudi.

2-5: *Pike-maillue*: Esan dogun zerrea ta kodaiñea zorrotzuteko azpian jun- gedia ipinten da eta onen gaiñean zorrotzu bear dana eta gero mailluaz jo, agiñak aterateko, orrelan ebagitea obeto egin dagian. *Pike-maillua* deritxo orretarako erabilten dan mailluari.

2-7: *Erremesa*: Erderazko berbea da baiña erderaz gitxiago erabilten da euskeraz baiño. Euskeraz ekiñaldia esan nai dau.

2-9: *Segan*: Garia ebagiteari esaten jakon *segea*. Ortik *segalarriak*...

2-9: *En generalean*: Barriro be erderazko esaldia bear-izan barik: *Geiene- tan*.

3-2: *Zozkuen*: Euskuen.

3-4: *Guztik*: Jatabe'tik Urduliz'era bitartean egiten dan laburpena da au: *Guztiak*.

3-5: *Amimerea*: edo *albimerea*, erderazko "compota" ren antzeko janaria da, sagarrez eta gozokiz egiña. Umeak be jaten dabe, baiña ardau barik. Izan leiteke erdera zarretik artutako berbea eta onek arabiarrakandik.

3-12: *Zaten*, geienetan *jaten* esaten da, baiña mungialdean zabal dabil *zatenau*.

3-19: *Parrandan* diñotso etxerik etxe neskak agurtzera egiten zan ibillaldia-ri, *errondan* be esaten jakon.

3-19: *Etzeetara*: Toki batzutan *etzea*, beste batzutan *etxea* esaten da. Idatzi *etxea*.

3-21: *Topaten*: "topar" esaten dabe erdeldunak, baiña euskeraz askoz geiago. Gogoratu "con la Iglesia hemos topado Sancho". Adierazpena aldatu egin da: Aritoak topeka egiten dabe, galduta dagoana topau edo aurkitu egi-ten da.

4-1: *Auzotegi*: Auzoa urrengo etxeari esaten jako, ondo dago *auzotegi* esa-tean: etxe asko dira.

4-9: *Saiezki*: Itz egokia, *saietza* eta onen zatia *saiezkia*.

4-13: *Errepartoa*: Itz au be sartu jaku, *banaketa*.

5-2: *Abarka*: Euskaldunen oiñatqkoa zan antxiña. Berez narruzkoa eta etxean egiña zan, baiña gero etorri dira gomazkoa eta erosiak.

5-2: *Taparokie*: Otz egiten dauanean agoa, aurpegia ta iduna estaltzeko jazkia da, eta orain erderaz "bufanda" esaten jako, lenago "tapaboca" zan eta ortik artu eben euskaldunak.

5-15: *Iniaba*: Indiaba edo Indiatik ekarritako babea da.

5-21: *Armosu*: Euskaldunen bigarren jatordua da, goizean barausi, gero amarretakoa edo armosua, gero bazkaria, gero askaria edo meriendea eta azkenez aparia. *Armosua* erderazko *almuerzo* da eta arabiarrakandik artua.

5-18: *Arkan*: Geiago esaten da *kaxan*, erderazko *caja* da, baiña adierazpe-na aldatuta. Ontzi aundi bat zan, olezkoa, barruan iru zatitan banatua, gaiñean olezko estalkia.

5-25: *Troka*: Erdera zarretik artutako berobea da. Lurraren beera aldia da, zulo antzera.

6-8: *Exeagaz*: Eizea erromatarren goldea da. Abere batek erabilten dau. Gero laieria edo laietako makiñea etorri zan, abere bik eroana, ta azkenez, traktora.

6-9: *Karkabatxu*: Karkaba eta troka arintzekoak dira, biak erdera zarretik artu eta gaur erderaz galduak, baiña euskeraz erabilliak.

6-20: *Bostortzagaz*: Lanabes bat, lurrari eragiteko ortzak bost daukazalako, itaillea be esaten jako.

7-1: *Komenimentu*: erderazko convenientemente litzake, baiña esangurea aldatuta, euskeraz aukerea.

7-5: *Gortan*: Abereak egoten diran lekua da gortea. Ez dauko zer-ikusirik erderazko *cuadra*"gaz. Basoan ardiak bigaiak egiten daben lekuari kortabaso esaten jako, erderaz sell.

7-7: *beíák eratzi*: Beiai esnea kentzen jakenean, eratzi egiten dirala esaten da. Jatxi-eragin da eratzi eta toki batzutan beaiak jatzi be esaten da, esneak batu be entzun dot. Baiña berba au oso egokia dala uste dot.

7-14: *Trugioiek, iñixetuek*: Trugioia edo trumoia erderazko trueno da. *In* esa-ten jako euskeraz zeruari, ortik oñetazia, inestua edo in oxiotua, inuntza...

7-14: *Kintzenea*: Lan-sariari edo alogorari emoten jako izen au, antza dagoenez, amobostean bein artzen zalako, saria.

7-22: *Terreñak*: Esnea eroateko erabilten ziran ontziaz esaten jake, kantiñak be bai.

8-3: *Illedea*: alkarren atzean dagozan gauzak edo norkiak dagoz iladan, erderazko *hilara*.

8-13: *Benga* itz au sarritan erabilten da gauza bat egiteko edo arin egiteko agintzen danean, zalantza barik erderazko *venga* da, zori txarrez euskeran sakon sartuta.

8-13: *Zelemiñea*: olezko ontzi txiki bat, laukia, alde batetik zelemiña osoa eta bestetik erdia artzen dauana. Zelemiña erdeldunen neurria da.

8-23: *Zarana*: Otzara aundia da, solo-ariak bedarrak etxera ekarteko erabilten zan, gaiñea biribilla eta oratzeko albo bjetan zulo bi.

9-5: *Lantzean bein*: *Noizean bein* esanai dau, Nondik etorria?

9-11: *Prasea*: erderazko *brasa*, zergaitik biurtu da *b* ori *p*?

9-13: *Birikiegaz*, *basneagaz*: Ona emen labarako tresne biren izena. *Birikia belakia izango* dala uste dot. Basnea ez dot entzun iñoz.

10-5: *Amaritekoak*: "*ave Maria*'ren orduan joten ziran *kanpaiak*."

11-28: *Egurdate*: Eguardia adierazteko erabilten da berba au *eguardirarte* izan leiteke.

## ESALDI JATORRAK

Ez dagoz.

Solozabal dat Paulin

---

# UME KONTUEK

"Zelan dozu izena...  
lpurdi gizona"...

"Ñungue zara?  
Eldu ta bertakue".

"Ikusi nai, baiña urriñetik".

"Daukanak daukanetik  
ta ez daukanak biotzetik".

"Geroa alperren leloa".

Saldi gaiñean doala diñoi:

"Arre, egin ez daiguen barre".

"Egunak egunari dei egiten dautso".


"Gizon asko ta prakadun gitxi".

"Egiazko maitasunak  
ez dau bigunkeririk maite".

"Odolak su barik diraki".

"Maire ba-da baile lez  
lanera ba-da barie lez".

Paulin



# GARAI GAIZTOETAKO IDAZLE EUSKAL.,,D Mt

Gaur egun edozeñek idazten eta argitaratzen ditu euskal liburuak, Euskera bei emankorra gertatu danean; baña, izan ziran egun orretarako gaiztoak ere, beia antzutu eta arerio txarrak zituenean. Ordu aietan ez zan batere erreza euskal liburuak ateratzea. Orrelako bat daukat emen, neure aurrean eta onela dio bere ate-buruan:

GURUTZEAREN OÑETAN (Eleiz liburua eta Nekaidi-eg qarteak)

Ona zer dion bere sarreran: "Zori txarrez, Bizkaiko euzkeraz, aspaldion ez da ezer argitaratu. Utsune au betetzeko asmoagaz, idaztiño barri au eskurazten dautsut gaur...

Gazte ta zar, Bizkaiko euzkeldun guztiak ulertu leikien euzkerea erabiltzeko alegiñak egin dodaz. Euzkaltzale jakitunak utsune asko idoroko daustez. Asketsi, arren.

Itz barririk ez darabiltz; itzai baño joskereari ardura eta garrantzi geiago damotsot. Ibaizabal'etik Ondarroa'ko itxas-ertzeraiño euzkeldun guztiak neure euzkera au ulertuko balebe, neure naia beterik legoke".

Orrelako euskera erreza darabil Pasionistar egillle onek. 1950'garren urtean argitaratu zuten Deustu'ko Aita Pasioniste'k. Liburuak bi zati ditu: Eleiz-librúa da lenengo zatia eta bigarrena 31 gogartek osatzen dute. Illebetean Nekaldia gogoan artzeko. Egilleak A. Ninbe izenakin izkutatzendu bere nortasuna. Nik ez det izen orrekin Pasionistarik ezagutu eta, alaz ere, nik emen dedan ale onetan, onela dio: "Arrinda'tar Anes, Deba'ko txanburu jator eta nere lagun maiteari biotzetikan EN" edo AN. Gerratean ezagutu nituen batzuk eta Zenarruzabeitia batek, Somosierra'ko frentetik, auntzen konpittak bialdu zizkidan opari. Orrelako lagun maite batek liburua eskeiñi eta gogoratu ezin; au dek au zaartzaroaren auleria!

Gotzaitegiko baimenak dionez: Inprimatur: Vitoriae, die 28-VIII-1950. Aiek ziran euskeraz idazteko garai latzak, aiek. Egille onen Euskera bezela, beste askorena ere, erreza, jatorra, garbia eta danok bat eginda gebiltzan. Giroak erreztu diranean, izkera ura baztertu, zaildu eta goitik-beera naaspillatu.

BZI

Orixe da beste orrelako liburu baten izena. VIVRE deritzan frantsez liburu

bat agertu zan gure artean, gerrateko trumoiak jo aurretik. Belgika'tik zetorren, Averbode'ren eskutik. Urtea 1935. Irigoien'dar Txomin Zumarraga'ko elizaren buru 1941'garren urtean aukeratu zuten. Oiartzuarra eta D. Manuel Lekuona'ren eskolakoa, idazle jaio, errez eta jatorra, Seminarioko Kardaberaz bazkunean saiatur. Onek itzuli zuen euskerara Frantzia'n ateratako M.M. ARAMI jaunaren 245 orrialdeko liburua.

Geure anai-arteke guda amaitu eta laister agertu zan Txomin'en BIZI izeneko lana. Berak itzuli, berak argitaratu, berak ordaindu eta berak zabaldu. Ori da euskeraren alde lan egitea, ori. Euskera irtetzen zitzaion barru-barrutik, begi garden eta emankor batetik bezela.

### **KRISTOREN ANTZ-BIDEA**

Ba zan aurretik beste orrelako liburu bat, KRISTOREN IMITAZIONEA zeri-tzana, ura ere, au bezela, Kempis'en itzuli bat. "Apaiz batek euskeratua dio" liburuak bere azalean. Apaiz ori Larrañaga'tar Eladi lazkaotarra da. Euskera amaren bularretik ikasia, Gazteiz' ko Seminarioan, Kardaberaz bazkunean, saiatur au ere. Don Manuel Lekuona'ren eskolakoa. 1953'garren urteko Iraillaren 24'e'an eman zioten Donostia'ko baimena, liburua argitaratzeko. Itzuli, argitaratu, ordaindu eta zabaldu, orra zenbat lan mugan beste aldetik eratuak. Gure gerratearen asieran joan zitzaigun Eladi beste aldera eta andik ibilli zaigu. Dax'ko Seminarioan, apaiz-lanetan. Euskera erreza, errikoa, garbia eta jatorra.

### **URTE GUZIKO MEZA-BEZPERAK**

"Orixe"ren lana. Garikoitz'tar Laguntzailleak. Ascain (France. B-P) da Argitaldaria. Dax'en eman zioten argiratzeko baimena: Inprimatur. Aquis, 4 Martil 1949. CLEMENS Episcopus Aturiensis. Milla ta lareun orrialdetik gorako liburua. Lan izugarria. Orixe'ren euskea sakona eta indartsua ezagutzen degu eta liburu au euskaldunen eskuetan ikusten genduen Meza latinez ematen zanean; baña, idazketa aldatuta gero, euskeraz Mezak ematen asi giñanean, orduan baztatu zan liburu eder-eder ori. Garaiak ziran alakoak eta zenbat neke, bai egiteko, bai argitaratzeko, bai ordaintzeko eta bai zabaltzeko... Donosti'ko Garibai kaleko 20'garren zenbakian bizi zan Mari Barriola Irigoyen'eri galdetu bear... Erririk erri liburu saltzen, gratis et amore. Ori bait zala euskeraren alde ondo eta garbi jokatzea. Euskera bizirik iraun arazteko alaxe jokatu bear.

### **JESUKRISTOREN BIZITZA**

Ikusi dezagun liburuaren Itz-aurrean zer dion egilleak:

"Jesukristoren Bizitza euskeraz jartzia, aspaldiko ametsa nuen. Oraindik mutil gaztea, Comillas'en nitzala, lan ori beste lagun betekin. Markiegi'tar (G.B.) ekin nion. Baña, gure orduko lantxo aiek, umien jolasekoak bezela, aizeak eraman zitun.

Urtez gero Iraizoz'ko Polikarpo Kaputxinoa'k eta Oyarzabal apaizak idatzitako Gure Jaunaren Bizitzak biak eskuratu zitzaizkidan. Arrezkero sarritan erabilli izan ditut, eta pozik irakurtzen aritu izan naiz: biak oso ederki bai daude... eta nere asmoari laga nion.

Oraintxe iru urte Otoitz Bidea argitaratu nuen. Ori irakurri zuten batzuk jardun da jardun egin zidaten, aren antzera, Jesus'en bizitzako liburutxo bat ateratzeko, euskera arrexean, guztiak aditzeko eran... Or dezu nere lantxo au...

gure Euskalerriko gizon eta emakume onentzat egin det, besterik ezean au beintzat orakurri dezaten...".

Markjegi'tar bat aitatzan du, baña izenik ez digu esaten. Bi anai apaiz ziran, Jose nagusia, Mondrago'ko apaizekin fusilatua eta Peli gazteagoa Bahía Blanca'ko desterruan illa. Markiegi'ren etxean neronek ikusi ditut talde baten lantxoak: bederatz'koa zala, usten det telde ori, Nemesio Etxaniz ere an ze-goen. Aien jokaera Comillas'en, gurea Gazteiziko Seminarioaren antzekoa zan: Lantxo bat egin bakoitzak euskeraz eta danon artean zirikatu eta aztertu. Badirudi Jesukristoren Bizitzaren eg'illea Manzisidor Aita, Lagundikoa, ere tar-tekoa zala. Onen liburua 1953'garren urtekoa da; El Mensajero, B'jbon aterea.

Bi Jesus'en bizitza a'ztatzen ditu: bata Aita Iraizoz'ena eta beste Oiartzabal'-dar Martiñena. B'jak gerra aurrekoak; giro ona zaneke garaikoak. Oiartzabal'eri 1935'garrenean eman zioten liburua argitaratzeko baimena.

## GOLDAKETAN

Zaitegi'tar Jokin'ek Mexico'n 1946'garren urtean agertua. Bolibar irarkolan atera zun "Pizkunde" Argitaldar'ak. Bere olerkiak ditu eta bertan dakar V Olerki Jaietan eman zioten z'illarrezko Aritza. Tori Nere Edontzia.

Alde guztietan, era guztietako langilleak zitun laguntzaille Euskereak, are-riak zituen bezela.

Aintza tokietako baztar guztietan, ixilik, illunpean eta nekez lan egin zuten guztiei. Aintza ta oorea merezi dute gure aldetik, lenago izan ez zutena.

Anes Lazkaoko

---

# BIZKAIA 'N ENTZUNDAKO ESALDIAK

- Aldian aldikoa.
- Atan be. Esaterako: Jo egin eban, buruan atan be.
- Atakotzat. Esaterako: bazkaldu dozu? Atakotzat.
- Txarka be. Esaterako: Orain zarrak gara, baña txarka be, bizi gara.
- iñongo erru barik.
- Gizona otzarapean be gizon.
- Ez dagoan lekuan eskua garbi, dagoan lekuan begia argi.
- Aurrez-aurre. Gizon bat aurkitu neban bidean aurrez-aurre.
- Zelako umeak alako gizonak.
- Itzal = aundia. Gose itzala neban egun aretan. Poz itzala artu neban.
- Egundo poza artu eben umeak ama ikustean.
- Geroen geroa. Esaldi oneik geroen gerorako idatzita geratzen dira.
- Txarra baiño txarragoa. Esterako: Gaur egualdi txarral Txarra baiño...
- Urtea egiten dauanean. Esaterako: artaziak galdu dira. Urtea egiten...

# MUNGIALDEKO ANAKAK ^ ERBAK

Mungia'n beste erri askotan'lez, aldaketa ugari egon dira azkeneko urteotan. Esaterako, urte gitxiren barruan Mungia, nekazal erri izatetik, industri erri izatera eldu da.

Ori da arrazoi garrantzitsuenetako bat, beste artean. Baserrietan ezagutzen ziran; landaran izenak, antziñako labrantzarako tresnen izenak, txorien izenak, bedar motak eta abar luze bat, gure egunotara iritsi edo eldu ez izatea.

Gure arbasoek gauza bakoitzari bere izenetik deituten eutsien, baiña urteak pasa ala desagertuz joan jakuz.

Nik egin dot neure alegiñ txikitxua eta urte bi lotu barik neure agendatxoa aldean dabilketela, lortu dodaz ia desagertuta egon diran berba batzuk batueta, eta geure eguneroko bizimoduan sarri entzuten doguzan berbak batutea.

Sarri askotan, guretzako berba batek garrantzirik ez dekola, beste leku batzutan ez dabe ezagututen, eta ez dago azago joan bearrik, bertan Mungialdean, kilometro gitxiren barruan berbak asko aldatuten dira eta.

Printzipioz, berbak familietan banatu dodaz ta argi ez dekotazenak aparteko zerrenda luze baten ipiñi dodaz.

## ERREMINTAK EDO BASERRIKO TRESNAK:

—Urkulue: Antziñeko labasuetan artoa erretan zanean erabili oi eben tresna da. Mango edo asta luzia zeukon ta labasuareri barruan egozan artoei buelti, emoteko erabilten zan.

—Itxuraz:

—Zurrune: Karroak atzeko aldean palu bat eroaten dau, bedarrak kargetan direnian jausi ez daitezkan.

—Itxurez:

—Porkeria: Labrantzarako erabilten zan tresna bat da. Lau ortz daukoz eta ago antzeko sillotxo bat, andik artoa, edo baste edozer, botaten eutsen.

— Esia: Atziñe txarrieri "osalia" emoten jaken jateko.

Osalia izaten zan; kalabasia, asa orriak, urune, naboia, erremolatxia, eta beste elementu batzuk nastuta. Eurok txikitako tresna da esia. Lauburu baten antza dauko, baiña aldeak biribildute eta zorrozute.

Frantsez esia: Esian antzekoa zan baiña, ebagiteko oja ezberdiñagaz.

—Gorue: Len galtzerdiak eskuz egiten ziran, ta palu zorrotz bat erabilten ebien ardi lanea ipiñeko.

— Itxuraz: **A**



- Gardak: Ardi lanea gardatu (kardar) egin bear izaten zan eta zepillu baten antzeko tresna bateri esaten jakon "gardea".
- Goldeak eta Laiak: Labrantzarako erremintak. Lurra zulotu edo urrutu egiten eben.
- Karramarroa: Au bere labrantzarako tresna zan. Itxuraz lauki erakoa dogu eta punta zorrotzak daukoz aspikaldean. Lurra urrututen dau eta zalduari ipinten jakon. Geroago ereiteko erabilten eben.
- Trigerue: Bein indabak eta batute dagozarian azala eta zatarkeriak kenduteko.
  - Iristekue: Colador.
  - Laratzue: Bekosuan egoten dan engantzea edo lotura kateari lotuta, tarterak eta lapikoak eskegiteko.
  - Estoa: Mokillak apurtuteko erreminta, Saratz (sauce) bigunekaz eginda-koa.
  - Eisia: Labrantzarako tresna bat. Errekena edo karkabea egiteko.
  - Atxurre: Zada.
  - Kakoa: Atxurren moduko zotz edo agin biko tresnia.
  - Eskuberia: Rastrillo.
  - Kodañia: Guadaña.
  - Sorrostarría: Kodañia sorrostuteko arria.
  - Agia: Biga.
  - Igitaia: Serra (Mungia'n). Hoz.
  - Giñerria: Eskoba edo orrats basto bat toki tontortzuak garbituteko.
- Sarana: Cesto.
- Sardia: Sarda.

\*\*\* \*

#### BEDARRAK:

- Bedar siporra: Ardiak eta ganaduak jan gura ezik dabilkian bedar basto bat, geienetan leku urtsuetan egoten da.
- Siya: Terreno edo lur urtsuetan urtetan dauan bedar mota bat.
- Intxurriya: Mungia'n. Enredadera, eta beste toki batzuetan "muérdago".
- Iria edo irea: Helecho.
- Birsaye: Birsai.
- Saiye: Salvado.
- Garagarra: Cebada.
- Galtzue: Paja.

\* \* \*

#### MEIDUTEKO NEURRIAK:

- Asunbrea: Litro bat eta erdi. Geinetan esnia izaten da.
- Seremiñe: Garoa, intxaurrak, urritxak eta abar neurtuteko ontzi bat da.
  - Itxuraz: \                    /
- Anegea: 50 kg.

- **Arroa:** 12 kilo ta'erdí.
- **Erraldea:** 5 kg.
- **Gizelana:** 365 metro karratu.
- **Peonadia:** Erdal neurri bat da.

\*\*\*

## TXORIAK:

- **Mingorra:** Agachadiza.
- **Mingor-piztojoa:** Agachadiza chica.
- **Oillogorra:** Becada.
- **Egaberia:** Ave fría.
- **Basollarra:** Abubilla.
- **Indi-eperra:** Perdiz nival.
- **Ugerilloa:** Polla de agua.
- **Oskillasoa:** Arrendajo.
- **Mirue:** Ratoneo común.
- **Okill txikerra:** Pájaro carpintero menor.
- **Txontia:** Camachuelo.
- **Gau-ontz ziruya:** Lechuza.
- **Pato txikitxue:** Zarzeta.
- **Durduria:** Chorlito.
- **Txirtia:** Bisbita común.
- **Gau epela:** Chota-cabras gris.
- **Txinyorra:** Peti rojo.
- **Miru-baltza:** Ratoneo negro.
- **Txinboa:** Reyezuelo, kurruka.
- **Txepetxa edo epetxa:** Txotxin.
- **Txepetxiñe edo pepetxiñe:** Carbonero.
- **Bela baltza edo bella:** Corneja negra.
- **Bela nausia:** Cuervo.
- **Birigarroa:** Malviz.
- **Zozoa:** Tordo.
- **Gaztala zozoa:** Tordo de Castilla.
- **Mukia:** Urraka, marika.
- **Gabilloia:** Gavilán.
- **Eperra:** Perdiz.
- **Galeperra:** Codorniz.
- **Sasi-txoria:** Carrocerín.
- **Pioa:** Pardillo.
- **Ur-txoria:** Mirlo acuátjco.
- **Antzarra:** Ganso.
- **Uso nagusiye:** Paloma torcaz.
- **Uso txikerra:** Paloma bravía.
- **Konpoko birigarroa:** Zorzal alirrojo.
- **Artatxorie:** Gorrión.
- **Kilgaroa edo kardu-txorie:** Jilguero.
- **Elatxue edo elaie:** Golondrina
- **Eperdikeria:** Lavandera.

- **Okille:** Pájaro carpintero.
- **Kurlinkia:** Zarapito.
- **Kurlike:** Zarapito real.
- **Amillotxa:** Herrerillo.
- **Gau-ontza "Gebontz" (Mungia'n):** Buho.

\* \* \*

### ASTEKO EGUNAK:

- **Astelena:** Lunes.
- **Martitzena (Martzena; Gamize'n):** Martes.
- **Egustena:** Miércoles.
